Lapurdum
Euskal ikerketen aldizkaria | Revue d'études basques | Revista de estudios vascos | Basque studies review

Numéro spécial 3 | 2015
Euskal hizkera eta dialektoak gaur egun

Amiküzeko ʰeskuararen hezurdura lektala

Iñaki Camino

Éditeur
IKER

Édition électronique
URL : http://lapurdum.revues.org/2645
DOI : 10.4000/lapurdum.2645
ISSN : 1965-0655

Édition imprimée
Date de publication : 1 novembre 2015
Pagination : 27-79
ISBN : 9782955341322
ISSN : 1273-3830

Référence électronique
Iñaki Camino, « Amiküzeko ʰeskuararen hezurdura lektala », *Lapurdum* [Linean], Numéro spécial 3 | 2015, Sarean emana----an 12 juillet 2017, kontsultatu 20 septembre 2017. URL : http://lapurdum.revues.org/2645 ; DOI : 10.4000/lapurdum.2645

Propriété intellectuelle IKER UMR 5478

Amiküzeko ^{h}eskuararen hezurdura lektala[1]

Iñaki CAMINO
(UPV/EHU)

Laburpena

Saio honetan Amiküzeko euskal mintzoaren gramatika atalak eta alderdi lexikoa aztertzen dira. Ikerketaren aldetik aski mintzo ezezaguna da Amiküzeko euskara eta haren idatzizko agerpena aski berankorra da, gainera. René Lafonek (1955) eta Henri Guiter-ek (1973) ziotenez, biziki konplexutasun du Amiküzeko heskuarak eta baita mikroeremu anitz ere; bi hizkuntzalariek adierazi zuten mintzo hau xeheki aztertzeko beharra. Gure lanak Amiküzeko hizkuntza-ezaugarrien hezurdura orokorra aurkezten du, zein tasun partekatzen dituen Baxenabarre orokorrarekin eta zein, bestela, zuberotarrekin; ibarreko mintzo orokorrak ingurumariko mintzoekin zein berrikuntza partekatzen dituen eta zein ezaugarri zaharri eutsi dion ere erakusten dugu. Amizküztarrek beren eskualdean garatu dituzten berrikuntza endemikoak zein diren ere badakargu eta erakusten dugu, bestalde, Amiküze barrenean, ibarraren ekialdeak, hegoaldeak eta mendebalak ondoko beste euskal eskualdeekin zein berrikuntza partekatzen duten: funtsean, Amiküzeko saihetsetan ibarreko mintzoaren batasuna nola difuminatzen den.

1. Sarbide

Historikoki Zuberoan egon da euskal ekialde linguistikoaren erdigunea, herrialde honetan ageri da Euskal Herriko ekialdean geografia-eremu hedatuena duten ezaugarrien konbinazio sendoena: ekialdeko hizkuntza-ezaugarri guztiak Zuberoan batera ageri zaizkigu

1. Lau ikerketa-egitasmotan kokatzen da ikerlan hau: a) **Núcleos innovadores de los dialectos vascos**, MEC, FFI2012-33190. b) **Monumenta linguae vasconum (IV): textos arcaicos vascos y euskera antiguo**, MEC, FFI2012-37696. c) **Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada,** Grupos consolidados, 2012, GIC. IT698-13. d) **Lingüística teórica y diacrónica: gramática universal, lenguas indoeuropeas y lengua vasca,** UPV/EHU, UFI 11/14. Iraganean Nafarroako Gobernuak lagundu du ikerlan hau datu biltzera Amiküzera joan ahal izateko: 2008. urteko **Periferias del vascuence de Navarra** [440002 44200 4800 334100] eta 2009ko **Periferias del vascuence de Navarra** II [440002 44200 4812 334100] egitasmoen bitartez.

eta horregatik joera dugu pentsatzeko historikoki ondoko ibarrak Zuberoako mintzotik ezaugarriak hartzen edo biltzen aritu direla; hipotesi gisa baizik ez bada ere, pentsa liteke garai batean Zuberoan zegokeela demografia, gizarte, ekonomia eta beharbada kulturaren alderditik ere indarrik gehien, zuberotarrek abeltzainen erkidego edo gizarte sendo bat eratzen zuketela, ondoko ibarretako jendea erakartzeko aski gaitasun zukeena.

Ordea, egun arras ahul dago Euskal Herriko hizkuntza-ekialdea: Zuberoak, Erronkarik, Zaraitzuk edo Amiküzek gizarte, erakunde, Eliza eta ekonomia aldetik ez dute orain beren arteko batasunik, gizartearen eta erakundeen aldetik inoiz baino errealitate desberdinagoetan murgildurik daude. Gainera, eskualde horietako bazter gehienetan ekonomia apalduz doa eta euskara bera ere gainbehera gogorrean sarturik dago. Gizarte-egoera hau ez da egokiena hizkuntza-berrikuntzak Euskal Herriko ekialdean sor eta ondoko eskualdeetara heda daitezen; azken aspaldi honetan euskal ekialde linguistikoa ahuleziak jorik dago. Halaz guztiz ere, aztergaia Xiberoako saihetsean kokatu nahi izan dugu, haren ondoko Amiküze ibarrean. Ohiz mintzo anfibioek berezko interesa ukan ohi dute: ez dugu zalantzarik euskaldun amiküztarren berezitasun lektalak biltzea, sailkatzea, aztertzea eta gaiaz argi amiñi baten ekartzea on dela euskal dialektologiarendako.

Ikerketaren aldetik aski mintzo ezezaguna da Amiküzeko euskara; mintzo honen izaeraz hor gaindi irakur daitekeena guti da eta gainera, ñabardurak egin behar dira idatzi diren baieztapen batzuez. Eman dezagun, honela zioen Junes Casenavek duela urte multso bateko idazki batean (1983: 8):

> Behenafarroako euskalkia da hemen mintzatzen dena, baina hego eta hego-ekialdera badu zuberokeraren eite eta kutsua, eta zenbait herrik zuberokera garbi garbia egiten du.

Ez da atzendu behar Casenave 1964-1981 urteetan Donapaleuko **Etxekopar** ikastegiaren zuzendari izan zela (Davant 2009: 138) eta ez da zalantzarik, beraz, Amiküzeko euskara ongi ezagutzen dukeela. Ordea, ez dakigu "zenbait herri" horiek zein diren, jakintsu zuberotarrak ez zuen zehaztu.

Eta zantzu iduriak ageri dira Txomin Peillen euskaltzainaren idazki batean ere, zehazki Amiküze eskualdea aipatzen ez badu ere (1994: 259):

> ...le souletin se maintient au milieu du dialecte bas-navarrais, dans quatre ou cinq villages de Basse-Navarre.

Jean-Baptiste Coyosi idatzi gutun batean, Oragarre, Ilharre eta abar mintzo erdi zuberotartzat jotzen ditu Peillenek (Coyos 1999: 45-6).

Gauza beharra da baieztapen horien gibelean zehazki zer dagoen xuxen argitzea, erran horiek funtsean dialektoen mugen auziaz baitihardute eta honelako iritziak ematean arras garrantzizkoa da norberaren irizpideak zein diren garbi eta esplizituki aitortzea.

Gure ezagutzaren eta ikuspegiaren arabera, Baxenabarreko inon ere ez da zuberera mintzatzen, are gutiago "garbi-garbia" den xiberotarra. Besterik da laphizketar edo behaxkandar baten mintzoan Zuberoan nagusi diren ezaugarri ugari aurkitzea, edo Baionan Ipar Euskal Herriko franko euskaldunek laphizketar edo behaxkandar horren mintzoa zuberotartzat hartzea; halaz guztiz ere, gertakari honetatik ez da jarraitzen Laphizketako edo Behaxkaneko euskara zuberera dialektoko partaide denik; itxurari, ezaugarri salatzaile jakin bati eta entzulearen lehen irudipenari baino gehiago, auzia funtsean irizpideei eta metodologiari dagokie, dialektologia deitzen dugun jakintzagai horren ibilbide teoriko-metodologikoari, haren garapen zientifikoari.

Har dezagun Amiküzeko hego-ekialdeko Sorhaphürü herria: Zuberoako Lohitzüneren ondoan dago, herri bateko hondarreko etxeak eta besteko lehenak elkarri hurbil daude. Bestalde, errate batera, etnografiaren aldetik Sorhaphürüko elizan hiru zeinutegi daude, Zuberoan bezala. Ezagutzen dugun larribartar baten iritziz Sorhaphürüko mintzoa zuberera da, horko mintzoak Zuberoara jotzen du. Ordea, Sorhaphürün datu lektal zenbait biltzen duena berehala ohartzen da emaitzek ez dutela ikuspegi hori deus ere bermatzen:

bokalarteko "r" galdu ez duen **gira** adizkia

izan aditzaren Nor saileko iraganeko **ginden** 'ginen' aldaera berria

dutela adizkiaren hirugarren pertsona pluraleko **-te** Nork morfema —eta ez "diela" —

jaten eta **jin** hitzetako [ǰ-] sabaikaria —[ʒ] ozena beharrean—...

ez dira inola ere zubereraren ezaugarriak. Ez Laphizketan, ez Sorhaphürün, ez Behaxakenen, ez Zohotan, ez Amiküzeko hego-ekialdeko zeinahi herritan, ez Baxenabarreko inolako beste herritan ere egiten da zubereraz; uler bedi, gainera, auzi honi dagokion delako **onus probandi** aurkeztea baieztapenaren egileei edo aldekoei dagokiela eta ez inola ere guri.

Ezagun du Amiküzeko euskara ez dela zuberotar garbia ezta Baxenabarre orokorreko edo gehieneko mintzoaren eite berekoa ere, eman dezagun, Arberokoa edo Garazikoa; honetaz ohartzeko, gainera, ez da hizkuntzalari edo filologoa izan behar. Jean Etxepare Bidegorri mirikuak 1912 urtearen aldean honela bereizten zuen Amiküzeko ʰeskuara[2] —eta beraz nortasunez janzten eta betetzen—, **Eskualduna** kasetara igor litezkeen euskal idazki llabur batzuez ziharduela (in Charritton 1984: 263):

> edozoinek bere erraitekoak han ezar ahal litzazke; lapurtar, baxenabartar, amikuztar, xuberotar, nor nahik, zentzuz labilken ber.

2. Adibide frankotan hitzaren hasierako **h** ahul entzuten denez eta inoiz hiztunek ahoskatzen dutena **h** gabeko **eskuara** aldaera denez, ʰ**eskuara** idatziko dugu hemen, baina jakitun gara **heskuara** aldaera ere usu entzuten dela; guhaur gara lekuko edo entzule.

Hein batez Baxenabarreko mintzo orokorretik saihesten da Amiküze eta Zuberoa alderdi horretara jotzen du ibarreko mintzoak: Amiküzeko mendebaletik ekialderat emeki-emeki bagoaz, herri batetik bestera Zuberoan nagusi dabiltzan ezaugarriak pilatuz eta isoglosak sortuz doazela ohartuko gara; eman dezagun, Amiküze mendebalean **sendatu** aldaera ematen dute, baina ekialdean **sendotü**.

Nor den euskaldunarendako mingarri izanik ere, ahoan bilorik gabe aitor dezagun Amiküzeko **heskuara** guztiz egoera larrian dagoela: guti mintzatzen da, franko herri eta etxetan eten dute transmisioaren katea eta bertako jendeek diotenez hondarreko hamarkadetan zinez beheiti jo du euskararen erabilerak eskualde zabal honetan. Badira euskaraz mintzatzen dakiten gazte bakan batzuk, baina hauetarik anitz makeski mintzo dira, ez dute ohiturarik, gehienik frantsesez usatu dira. Zuberoan bezala, Amiküzen ere gainbehera doa euskara; orain artean tradizioko hizkuntzaz ezaxola erakutsi duten bertako hainbat lagun eta handiki, beren bizi guztian inguruan euskara entzutera usaturik zirenak, orain bai, euskara zinez galtzen ari dela ohartzen hasi dira. Egungo amiküztar batzuen euskaltzaletasunak ez du aski indar hizkuntzaren transmisioak gutieneko bermea ukan dezan, mintzoak iraganeko freskotasuna berreskura dezan.

Amiküzeko hizkuntza-berrikuntzak egun Lapurdi-Baxenabarretik edo Euskal Herri orokorragotik iritsiak izaten dira, non eta ez diren Hego Euskal Herriko euskara batutik jiten; gainera, tasun berriok ez dira gizarte euskaldun guztira hedatzen, euskaraz mintzatzen jarraitzeko halako barne erabakia harturik duten eta irauteko borondatez diharduten hiztunengana baizik: hauen artean bereziki helduengana edo gazteengana, baina zaharrengana ez. Alta, ikerlanerako datuak biltzeko lekuko adinetakoak hobetsi ditugu herri guztietan, tradizioko **folk** mintzotik nahi genuen, Amiküzeko orain arteko berezko euskaratik.

Herri bakoitzeko euskara leial ordezkatzen duen mintzoa bilatzen eginahalak egin ditugu, zin-zinez egin ere, baina usu ez da aise izan: Amiküzen jendeak artean **etxetier** edo **etxezain** ibili dira, mozkinaren zati handi bat funtsen eta etxearen jabe zen nagusiari emanez, aldizka herri batetik bestera bizitzera aldaturik: jendeen higikortasun handia eragin du eskualdean lan baldintzen sistema kasik feudal honek, izan ere, zail da herri batean sortua den, aita-amak herri horretakoak berekoak dituen eta herri horretan berean bizi izan den beriemaile amiküztarrik aurkitzea eta halaz, batek ez daki beti xuxen honako edo halako ezaugarria zinez herri jakin batekoa ala beste batekoa den. Halaz guztiz ere ikerlan honek Amiküzeko hizkuntza-errealitatea erakusten du, ez dakar ametsetako hizkuntza-egoera ideal bat, egoera lektal idiliko eta betiereko bat: bildu dugun euskara motaren berri leialtasunez ematea izan dugu helburua, hori izan da aldi oro gure borondatea, Amiküzeko herrietako jendeen mintzoa den bezala aurkeztea.

Baxenabarretik inguratu gara Amiküzera, Arberoako Heleta, Armendaritze eta Mehainetik abiaturik eta ondotik Amiküzeko iparralde guztia eta hegoko herri guztiak iragan ditugu, Garrüze, Unaso, Aiziritze eta Zilhekoa salbu. Amiküze guztian bildu ditugu datuak banden grabazio luzeetan. Ondotik datuak aurkeztean herrien laburtzapenak baliatuko

baititugu, hona zein den hauen zerrenda:[3]

Donapaleu ez dugu on lukeen alderdi soziolinguistikotik aztertu, ohiko azterketa geolektala egin dugu bertan, Xibaltarre auzoko bi lekuko laborarirekin egonik. Honelako lanetan hiriek eragin ohi dituzten arazoak ager daitezke gure saioan, baina uler bedi ere, egungo Donapaleun euskarak ez duela gizarte-indar handirik, neke dela bertako karrikan jendea euskaraz mintzatzen entzutea; orain berean Donapaleun behar den bezalako lan soziolinguistiko bat traxuan egiteko —eredu anglo-amerikarraren araberako soziolinguistikaren ildotik bederen—, denmendreneko aukerarik ez dugu ikusi, baina ez dugu beste nornahik ikerlan hori egiteko aukera ukatzen.

Berrikitan halako hizkuntza azterketa bat egin dugu Oztibarreko euskara ikergai harturik; bereziki alderdi lexikoan oinarriturik, ohartu gara badela Baxenabarre hegoaldeko lexikoaren sorta bat Oztibarren ageri ez dena. Bestalde, hainbat eta hainbat hitz eta aldaera fonikotan Baxenabarreko hegoaldea baturik ageri da, Oztibarren ez bezalako hitzak eta aldaerak ageri dira peko alderdi horietan. Nolanahi ere den, hegoalde horretan ekialdea eta mendebala ez doaz beti-beti batera: eman dezagun, Garaziko Hergaraitik hasirik Baigorri ondoko Orzaizeraino batasun lexikoa ez da guztizkoa. Baina beste emaitza bat ere argi erakutsi digu aipatu azterketak: lexikoari dagokionez, hitz eta hitzen aldaera fonikoen multso handixko bat ageri zaigu hala Baxenabarreko hegoaldean nola erdialdean, eta oro har hitz eta aldaera hauek ez dira Amiküzen ageri, edo ez Amiküze gehienean bederen, baina Baigorrialdea, Garazi, Landibarre eta Oztibarre batera doaz hitz eta aldaera foniko ugariren erabileran, betiere amiküztarrek horiezaz bestelako itemak darabiltzatelarik. Halaz, hegoalde eta erdialdeko hizkuntza-batasun horrek espazio zabala biltzen du eta balirudike indarrez jotzen duela goiti, kasik eremu gehiago harrapatu nahirik bezala, bulkaka edo.

Egiazki, Nafarroa Behereko euskararen dinamikari loturik dago Amiküze eskualdea, eta bereziki ibarraren hegoaldea, errate batera Uhartehiri herria. Doniane-tik goiti hedatzen den gizarte-ardatzak eragina ukan du Amiküzeko hegoaldeko euskal mintzoan. Uhartehirin badira Amiküzen ibiltzen ez diren baina Baxenabarren nagusi dabiltzan berrikuntzak, ez dago

3. **Amiküze:** Altzümarta (Altzü), Amendüze (Ame), Amorotze (Amo), Arberatze (Arbe), Arboti (Arbo), Arrüeta (Arrü), Barta-Oragarre (Barta), Behaskane (Behas), Behauze (Behau), Bithiriña (Bith), Donapaleu (Donap), Gabadi (Gab), Gamue (Gam), Garrüze (Gar), Ilharre (Ilh), Labetze (Lab), Laphizketa (Laph), Larribarre (Larri), Lüküze (Lük), Martxüeta (Mar), Oragarre (Ora), Ostankoa (Ost), Sarrikota (Sar), Sorhapürü (Sor), Uhartehiri (Uha), Zohazti (Zoha), Zohota (Zoho), Zokotze (Zok). **Lapurdi:** Bardoze (Bardo). **Ipar-ekialdeko Zuberoa:** Ainharbe (Ainh), Arüe (Arüe), Berroeta (Ber), Domintxaine (Dom), Etxarri (Etx), Ithorrotze (Itho), Lohitzüne (Loh), Oihergi (Oih), Olhaibi (Olh), Pagola (Pag), Sarrikotapea (Sarkp), Ündüreine (Ündü). **Arberoa:** Armendaritze (Arm), Donamartiri (Donam), Heleta (Hel), Mehaine (Meh). **Oztibarre:** Arhantsusi (Arh), Arroze (Arro), Azme (Azm), Bunuze (Bun), Donaixti (Donaix), Hozta (Hoz), Ibarre (Ibarre), Ibarrola (Ibarro), Izura (Izu), Jutsi (Jut), Larzabale (Larz), Zibitze (Zib).

Uhartehiri Amiküzeren grabitazio indar linguistikoen menpe bakarrik, baita Baxenabarreko berrikuntzen helmenean ere, herri honetako hiztunak Oztibarre-Landibarre-Garazi ardatzari ere loturik bizi izan dira: Uhartehirik eta inoiz Ostankoa herri ttipiak Baxenabarreko era orokorragoetara jotzen dute, Oztibarren, Landibarren edo Garazin direnetara.

Nolanahi ere den, Amiküzeko euskarak Zuberoakoarekin lotura eduki duela iradokitzen digute bertako hizkuntza-ezaugarri anitzek.

Eskualde zabala den Amiküze ibarreko mintzoan uler liteke guztizko batasunik ez izatea, ez da eite edo plegu bakarrekoa Amiküzeri eragiten dion hizkuntza-indarra: konparazione, ez dira berdinak Oragarreko mintzoa —Lapurdikoa eta Arberokoa hurbil dituena— eta Zuberoako erak hurbilago dituzten Zohotakoa edo Behaxkanekoa. Ibarreko saihets batetik bestera aldea eta desberdintasuna sumatzen da, herri batetik bestera goazelarik ondoko herrietako hizkuntza-ezaugarriekiko desberdinak diren beste tasun batzuen agerpena dago aldi oro, herririk herri emeki gertatuz eta ugalduz doaz aldaketak, mailaz maila. Arberoatik Zuberoarat Amiküzen gaindi continuum geolinguistiko nabarmena ageri da herririk herri joanez gero, baina eskualde jakin batean etena ere sumatzen da.

Aldakortasun horren adibidetako aditz nagusien etorkizuneko "-tu = -tü + -ko" lotura hartuko dugu, Amiküzen oro har -tiko palatalizatzen dena, baina -tuko entzun dugu hego Amiküzeko Uhartehirin:

argituko —bihar e argituko izi perpausean—, baliatuko, giilatuko, helduko

Amiküzen oro ez da -tiko, saihetseko Oragarren ere ezkunduko edo gertatuko etsenpluak ditugu, Arberoa ondoko Behauzen beatuko eta Labetzen finitüko, baina oro har erran daiteke Amiküzen -tiko era nagusi dela:

kafe xorta at hartiko uzia? (Arbe); bera hen plantatiko delaik (Arbo)

adibideak ditugu Zuberoako mugan; barreneko herrietako etsenpluak ere aurkez daitezke:

baliatiko, gelditiko (Mar), gertatiko, hartiko (Ilh), batheatiko (Bith)...

Bilakabidea Amiküzetik eskuinerat Zuberoako lurrean gaindi aitzinatu da, herrialdearen ipar-mendebaleraino, Domintxaineko nahastekatiko, Berroetako phaatiko 'ordainduko', Olhaibiko seinditiko, Arüeko ohartiko —baina arrastratüko-rekin batean—, Sarrikotapeko aipatiko nahiz sartiko edo Oihergiko gidatiko etsenpluak lekuko; Pagolan bi joerak entzun ditugu: hartiko, baina nagusiki -tüko: azkartüko, maneatüko, mintzatüko.

Amiküzek hizkuntza-alderdi batekin baino gehiagorekin du muga lektala: batetik Arberoarekin, non Baxenabarre erdiguneko ezaugarri nagusiak ageri baitira.

Uhartehirin ere beste muga nagusi bat finka daitekeela uste dugu: herri horretan eta

bertatik beheitira, Oztibarre, Landibarre eta Garazi inguruko euskara sentitzen hasten da; herri honetatik Xiberoako Lohitzüne edo Pagola urrun ez badaude ere, uhartearren euskarak hegorat Oztibarre alderdirat jotzen du.

Garrantzi handiko beste muga gotor bat Amiküzeko ipar-ekialdean legoke, Xiberoako mugan. Zuberoako ipar-mendebaleko herrietako euskarak Amiküzeko eretara jotzen du, ez da guztizko zuberera: Domintxaine, Berroeta, Ithorrotze, Olhaibi, Etxarri, Arüe edo Lohitzüneko euskara, ez da Ligiko, Barkoxeko edo Altzürüküko mintzo bera, manexen erak franko ageri dira Zuberoako ipar-mendebaleko herri horietan. Pagolako euskara ere baliteke lehenago zuberotarragoa izatea orain den baino, uste dugunez Arüen gertatu datekeen bezala. Goiti Sarrikotapean finka genezake zubererara sarbidea eta eskuinxeago Oihergin, baina franko ezaugarri entzun dugu Oihergiko euskaran manexen alderdira lerratzen direnak; Ainharben berean sumatzen da oraindik Baxenabarre ez dela urrun, nahiz ainharbearren euskara zuberotarra den. Halaz, Ündürainen jabetzen da bat Amiküzen gaindi sartu diren ezaugarri "manex"-en presentzia bukatu dela.

Arestian aipatu eskualde horietan dakuskigu guk Amiküze barreneko muga lektal nagusienak, baina bestelako ñabardura xeheagoak ere egin litezke: errate batera, Amiküzek iparraldean menderen mende kaskoin edo biarnesaren presentzia eta muga ezagutu du eta honek eragina utzi duke eskualdeko euskal mintzoan, eman dezagun, seigarren bokal edo ü fonemaren sorreran. Amiküztar gehienek ü ahoskatzen dute, Oragarreko Barta auzoa, Oragarre, Amorotze, Ostankoa, Bithiriña eta Uhartehiri herrietan izan ezik.

Iparrean jarraikiz, Amiküzetik ezker Bardoze dugu, berez Lapurdiko herria dena, erdi euskaldun erdi kaskoina: Amiküzeko hizkuntza-ezaugarri frankorekin zaharra dirudien kidetasuna ageri du Bardozek eta hein batez Aturrialdeko euskarak, oraindik ere batasun horren funtsa sakon aztertu ez bada ere.

Eta Amiküze barrenean badira bestelako kidetasun edo berdintasun mailako talde ttipiak ere: jendearen ibilerek irudikatu dituzkete hizkuntza-antzekotasun edo etenak eskualdean. Ez dago alde handi-handirik ezker-eskuin hedatzen diren Oragarre, Amorotze eta Behauzeko mintzoen artean, auzo dira, erdi-erdian dute Amorotze eta honela zioskun amoroztar batek:

> ba, guk killaka, killaka ta, pilotan eta, auzo herrikoikilan berdin, edo beauztarrekin edo, oartarrekilan edo, ʰola

Oragarre herri berezia da mintzoaren aldetik: amiküztarren artean Lapurdiko eretara gehien lerratzen dena da, baina Amiküzerekiko kidetasun handia du ere.

Adierazgarri da arestiko lekuko amoroztarrak auzo aldaera darabilela eta ez aizo. Amorotze nahiz Behauzen Baxenabarre erdigunean ibiltzen den auzo aldaera bildu dugu, baina Amiküzeko gainerateko herri gehientsuenetan aizo palatalizatua. Halaz ere, ez bedi pentsa Amiküzeko diptongoan Zuberoa edo Erronkariko au → ai bilakabidea osoki gertatu denik; lerradura lexikoaren bidez aizo ekarri dute amiküztarrek ekialdetik, bai, baina gainerateko au

diptongo guztiak honelaxe gelditu dira ibarrean, palatalizatu gabe, ez dira **ai**-ra lerratu:

belauniko (Laph), **gau** (Gam, Arbe), **gauza** (Beh, Gam, Arbo), **irauten** (Arbe); 1913an Amorotzen **iraunen** bildu zuen Trebitschek (Etxebarria 1994: 65)

2. Espazioa, gizartea, bizia, berrikuntzak eta hizkuntza

1952an Torsten Hägerstrand saiatu zen erakusten nola hedatzen den berrikuntza baten harrera, nola kurritzen duen eskualde sistema batean gaindi: hark oinarria ondokotasunean eta distantzian zekusan, komunikazioaren baitan, muga fisikoen eta gizarte erresistentziaren arabera, izan ere, berrikuntza baten azterketan jarraipena bezain garrantzizkoa baita etena edo kontrastea.

Laborarien ohiko erkidegoek egonkorrak izateko joera dute, non gizakien ekintzen egitasmoak denbora luzean errepikatzen baitira espazio murritzean, kasik eskualde kognitibo uniformean. Aldiz, laborarien gizartean baino, mundu hiritar eta industrialean egitasmoen egokitze lehiakorra konplexuagoa da eta hedatuago dago mundu osoko espazioan gaindi.

Geografia eta gizartea bereiz aztertzeko joera dugu zientzian dihardugunok, baina hein handian bateratsu doaz. Dialektologia egiten denean gizarte erlazioen eta egitura espazialen arteko hartu-emana jokabide zientifikoaren erdigunean kokatzen da, areago gure eguneroko bizian denboraren eta espazioaren antolaketa eraldatzen ari diren garai honetan.

Leku bat ez da espazio euklidearra soilik, gizarte elkarrekintza jakin batzuen jokaleku geografikoa baizik: uneoro aintzat hartu behar da zein den espazioan eta denboran gertatzen diren ekintzen baldintzen hierarkia eta banaketa. Lekuak eskualdeka eta barren-barreneko baldintzen arabera bereiz ditzakegu, non gizarte praktika errutinizatuen arautzea eta hurrenkera baitira botere erlazioen sorreraren eta erreprodukzioaren eragileak.

Erkidego batean berrikuntzak gertatzen direnean, gizarte erlazioen egituren bitartez eta gizarteko praktiken sistemen bitartez iragazten dira: ebentuen sekuentziak, komunikazioa eta berrikuntzaren harrera ez dira morfologia espazial hutsean gauzatzen, gizarte orotako berezko osagaia dira lehia eta gatazka: ez dezakegu pentsa berrikuntzak **pro bono publico** direla, horien harrera beti arazo edo gatazkarik gabea dela, horregatik, bada, indibidualismotik eta fisikalismotik harat, ebentuen konjuntzio iraunkorrak baino, gizartearen anatomiaren teorizazio bat galdegiten duten aldetik gizarte-praktiken sistemak argigarriago dira ikertzailearentzat.

Higidurak berez du lehenagoko hurrenkera hausten, egitasmo batek ez dezake higidura multzo bat baino anitzez higidura posible gehiago gauzatu kolapsatu gabe, espazioak mugak ditu aldi bereko norabideak egokitzeko, auzokotasun egoeran egile bakoitzak higidura batzuk baizik ez ditzake egin, ez ditzake guztiak batera egin, egitasmoen antolaketan hurrenkera egon behar du, elkarrekintzen sistemak denbora-espazioaren norabideen geometrian errutinizaturik daude: delako "espazio-denbora" adigaia, egitasmoen arteko lehiaren jokalekua bilakatzen da. Derek Gregory geografoak dioenez, espazioen historia botereen historia da: estrategia geopolitiko handietarik **habitat**-aren taktika ttipietara doan historia (1985: 316).

Michel Foucault-ek dioen bezala (1980), konfigurazio espazialek agerian uzten dituzte botere-bilakabide historikoak: pentsalari honek dioenez, legitimazio eta menperatze-egituren sorrerari eta ugalketari loturik dago informazioaren zirkulazioa (in Gregory 1985: 316-317); ura gure eiherara, edo hobeki erran, dialektologiarenera ekarririk adieraz genezake, hizkuntza-berrikuntza baten ibilbidea, hedadura eta helmena ere —espazio jakin baten egituraren barrenean, denbora jakin batean eta gizarte mota jakin baten baldintzen arabera gertatzen direnez—, legitimazio eta menperatze-egituren sorrerari eta ugalketari loturik daudela.

Foucault-ek "gizarte diziplinatua" deitzen duen errealitatean, gizabanakoek espazioan duten distribuziotik beretik dator diziplina. Berrikuntza bat gertatzen denean —eman dezagun, hizkuntzan—, mintzoaren ezaugarri baten higidura dago, baina gizataldeen arteko ohiko auzokotasun hertsiak hor dirau. Badakigu zernahi espaziotan higidurak ordena-haustura eragiten duela: errealitatean ez dago ekinbiderik higidura kopuru jakin bat baino gehiago egin dezakeenik kolapsatu gabe: norabideak aldi berean egokitzeko espazioak duen gaitasuna mugatua da; ekintzaile baten inguruko auzokotasunak bere ezaugarriak ditu eta delako "espazio - denbora" lehiagunea ekimenen arteko guda-eremua bilakatzen da (Focault 1980, in Gregory 1985).

Hizkuntza-ezaugarriak espazioan higitzeak halako lehia sortzen du haien artean: Baxenabarre gehienaren eta Zuberoaren artean ixtaklok kokaturik dagoen Amiküzeko eskualdeak halako hizkuntza-unibertso berezia eratu du, alderdi bateko eta besteko ezaugarriekin halako nahasketa berezia egin du eta franko ezaugarritan berezko berrikuntza endemikoak eraiki ditu, ondoko eskualdeetan ezezagunak direnak, amiküztarrek baizik baliatzen ez dituzten hizkuntza-ezaugarriak.

Erran dugunez, Amiküzen bereziena hizkuntza-ezaugarrien konbinazioa bera da:

- hainbat ezaugarri berri Zuberoan baliatzen direnak, baina Baxenabarreko gainerateko ibarretan ageri ez direnak
- Baxenabarre orokorreko franko berrikuntza
- okzitanieratik mailegatu ahal ukan duen berrikuntza bat edo beste
- Garazi, Oztibarre eta Landibarreko ardatzetik Uhartehiri edo Ostankoaraino bederen heldu diren ezaugarri batzuk

eta

- Amiküzeko mendebalean ageri den Hazparnetikako berrikuntzen sorta bat

Hazparnetikako berrikuntza horien berri emanen dugu orain llabur: Lapurdiko saihetsean dagoen Hazparne hiriaren kokaguneak ez du Lapurdik bere mintzoa eta Baxenabarrek berea dutelako ikuspegiaren alde jokatzen. Baxenabarreko euskaldun ugariren eskualdeburua izan da hondarreko mendeetan Hazparne, aspalditik merkatua ukan du eta

jendea usu inguratu da bertara. Honela diosku oragartar batek:

> ama ta aita ta goxama zena ta, Hazparnen tzien iiltzen merkhatian, arrutze saltzen ta hola; amak bazien hemen holako kapeta at, erten den bezela, hartan eta zaria ta bate atxiki gabe juiten tzen Hazparnea, xendraka, geo, ez bidez bide, xendraka, bazitzien eta, hola mendiz mendi, bazitzien bere bideak, xendra bidiak... nik ikhusi diat ama juiten Hazparneat merkhatura ni haurra nintzalaik ... ikhusi diat ba juiten uñez

Ez da urrun Oragarre Hazparnetik: Oragarre → Aiherra → Hazparne edo Oragarre → Izturitze → Aiherra → Hazparne bidea egin behar da, non ez bidea mendiz egin.

Bestalde, kanpotar batzuek garrantzi handiko zapatagintza lantegiak eraiki zituzten hiri honetan XX. mendearen hasieran; bi eragileok erakarpena izan dute ondoko eskualdeetan eskuin-ezker eta goi-behe. Berebat, demografikoki edo demolinguistikoki hazpandarrak portzentaietan gehiago dira eskualdeko beste euskaldunak baino.

Aberastasuna eta gizarte-dinamika eragin ditu Hazparnek ingurumarian. Alde eta aldi guztietako hizkuntza eta dialektoetan, Hazparnekoa bezalako errealitateek hizkuntza batasun zerbait edo berrikuntza batzuen hedadura bederen eragin ohi dituzte, bai Euskal Herritik kanpo eta bai hemen ere. Gure ustez baitezpadako eragina izan du Hazparnek hizkuntza-ezaugarri batzuen hedaduran, barnealdeko Ipar Euskal Herriko hizkuntza-berrikuntza batzuk barreiatu izanean munta du hiri honek.

Hurranen hiru tasunok Hazparnetik ondoko eskualdeetara abiatu zirelakoan gaude:

a) Genitibo singularreko atzizkiaren **-aan** aldaera ohiko gertakaria da Hazparnen, Heletan, Beskoitzen edo Bardozen egun, baina **-aen** dago Bardozen 1863ko B. **Celhabe notari hangotarra**-ren katiximan: **mundiaen akaantchadio** (Pagola, Iribar & Iribar 1999a: 305); aldiz, XIX. mendeko Hazparneko katiximan **guiichtinuaan** 'kristauaren' (Pagola, Iribar & Iribar 1999b: 214) eta **haan** 'haren' (217) adibideak ditugu eta aditz nagusian ere bai, etorkizuneko **joaan** 'joanen' adibidean (229). Baigorri, Garazi, Oztibarre, Amiküze gehienean eta Zuberoan bezala, **-ain** dago Iholdi (cf. Duny Pétré 1959), Armendaritze edo Mehainen, baina Arberoko Donamartiriko XIX. mendeko katiximan **-aan** dago, egun ere Amiküzeko mendebalean dagoen bezala; ezker, Epeldek Uztaritze, Milafranga, Jatsu, Haltsu eta Kanbon entzun du **-aan** (2003: 320).

b) Nor Nori eta Nor Nori Nork aditz sailetako iraganean ageri den tarteko **n** berri analogikoa, egun **zauntan** & **zaundan** 'zidan, zitzaidan', **zankon** & **zangon** 'zion & zitzaion', **nankon** 'nion' aldaerak dituena, XVIII. mende erdiko Hazparneko euskara islatzen dukeen **Kadet eta Bettiriño** idazlanean ageri da: **zangola** 'ziola' (Padilla 2011: 235). Ez dakigu berrikuntza horren ispilua **ginduen** & **zinduen** —**edun**-en iraganeko berezko **-nd-** horrek— eragina den, ala **gindakon** & **zindakon** edo **gindauden** & **zindauden** erako adizkiek eskaini ote duten, baina ez litzateke ezina. Irizarrek 1981ean **tipo ustaritzano** izendatzen du era **n**-dun hau (1981 II: 309), baina ez da ahantzi behar eskuinetik Amiküzeko mendebalera ere hedadura izan duela, guk

Arrüetan eta Behauzen entzun dugu; ez dakigu, gainera, Uztaritze alderdi horretan berrikuntza hau XVIII. mendearen erdialdean ibiltzen ote zen. Guztiz ageri da **n** berri hau Hazparne inguruan: Aturrialdean Bardoze barne, Larresoro alderdian (Uztaritze, Larresoro, Milafranga, Itsasu), Arberoan (Izturitze, Aiherra, Heleta, Armendaritze) eta Amiküzeko mendebalean. Aldaera hauen hedaduran garrantzia eta zerikusia duke Hazparne eskualdeburuak.[4]

c) Ohikotasuna adieraz dezake **johan (da)** erako egiturak. Arberoan eta Amiküzeko mendebalean bildu ditugu adibideok:

beldurraz johan ginden, zeen ta erremarkatia zinden ezpazinden mezara joaiten (Armendaritze)

aste guziez johan ginden (Armendaritze)

bezpeetan iilten bigintien eta ᵍeo pla[z]er baginᵗzin bezperetaik landa elgarrekilan johan elheka arᵗzia, ta kartaka ta hola (Arrüeta)

EHHA-k Bidarrai, Itsasu (93610-n **johan duk**), Makea, Hazparne, Bastida, Izturitze eta Aturrialdean dakar **johan da** adizkia eta hedadurak Hazparne du erdi-erdian, ez da Baigorri-Garazietan, Oztibarren edo Amiküze gehienean sumatzen; konparazione, Ibarrolan **joaiten gintzun Lurdaat** bildu dugu edo **ama joaiten tzu**; Hoztan **gu Garazirat, merkhatia baugu Donienen, ordian haat merkhatura joaiten gira** eta Donaixtin **astelehen guziz ene arreba bere arro̧tzen saltzera Donianeko merkhaturat juaiten duk**, baina ez ****johan duk**.

Balio puntukaria ere ukan dezake ibiltzen den eskualdean: cf. **sorthu nintuzun amaan altzotik johan zelaikan Espaiñiaat, beste ahizpa'aten ikhusteat,** Beskoitzen Trebitsch-ek 1913an bildua (Etxebarria 1994: 61); ikus **johan da** adizkia **doa / badoa / badua / juiten da / ari da** aldaerekin batean (**EHHA** 92010), hiztunek balio puntukarian emanik. Oztibarreko Donaixtin adizki trinkoak bildu ditugu: **badoa / badian** & **badiak / badiazu,** ez ****johan da**.

Dagoen lekuan egoteak eragin du gizarte-errutinizazioaren bidez amiküztarrek bateko eta besteko euskaldunekin hizkuntza-harreman hori —eta ez beste bat— ukan izana. Gizartesare horiexen baitan —eta ez beste batzuetan— loturik egon izanak halako unikotasun edo berezkotasuna eragin du, errealitate horrek eman dio Amiküzeko ʰeskuarari daukan kolore berezia. Eman dezagun etsenplu bat:

Eskuinaldean den Xiberoko **müsa** 'diru poltsa' eta Baxenabarre gehieneko nahiz Lapurdiko **moltsa** ez, **multsa** ibiltzen dute amiküztar gehienek: halako aldaera **interdialect**

4. Garaziko Suhuskunen **zauntan** edo **zauntenan** eta Oztibarreko Larzabalen **zauntateyan** eta **zauntatenan** dakartza Irizarrek (1981 II: 308-9), baina aldaera **n**-dun hauen agerpen bakarra da Garazi eta Oztibarren; guk ez dugu Oztibarreko datuetan ezaugarri hau aurkitu.

bat eratu dute, bateko eta besteko ezaugarriak batera daramatzan hirugarren errealitatea, ez eskuinekoa ez ezkerrekoa, erdiguneko berri berezia baizik: ixtaklok.

Amiküzeko mintzoa ez dago gizarte-errealitate historiko jakin batetik bereiz.

Etxetiergoak hizkuntza-batasuna eragin duke eskualdean, baina honela zail da hizkuntzalariarentzat hiztun baten ezaugarriak xuxen nongoak diren jakitea: haren aitaamen herrikoak, hura sortu zen herrikoak, ondotik etxetiergoan luzaz bizi izan den beste herri batekoak, ala azkenik etxea erosi duen herrikoak... orok eragiten du pertsona baten bizi linguistikoan, nahiz haur denboran entzuten dugun mintzoa den nagusiki gure garunean txertatzen.

Idazten diharduen monografian edo mapa/karta geografiko batean lekuko euskaldun etxetier horien mintzoaren ezaugarriak kokatu nahian dabilelarik, hizkuntzalariak usu sentipena du kimera baten ondotik dabilela, corpus-ean ezinezkoa dirudien hurrenkera eta koherentzia aurkitu nahian, eta inoizka halako zalantza sortzen zaio eskuartean duen eginkizunaz, atera uste dituen ondorioen xuxentasunaz eta ziurtasunaz.

Funtsean, egiten duen lanaren kalitateaz. Eta zer egin behar da?

3. Amiküzeko hizkuntza-ezaugarrien hezurdura orokorra

3.1. Amiküztarrak mintzoaren aldetik funtsean manexak dira, xiberotarren eragina luzaz bildu duten iparreko baxenabartarrak. Kokagune horrek izaera berezia eragin du, bateko eta besteko ezaugarriak ukaitea: oinarri baxenabartarraren gainean edo horiekin batean bederen, ezaugarri xiberotarrak kokatu dira, eta beste batzuetan, berriz, halako interdialect ezaugarri bereziak eraiki dituzte, Baxenabarren edo Zuberoan ageri ez diren Amiküzeko aldaera anfibio edo mixtoak, batetik eta bestetik nahasiz hirugarren errealitate berezko bat ekarririk, berena baizik ez dena.

Hizkuntza-ezaugarri ugariren konbinazioa dago Amiküzen eta guk tasun horien halako tipologia edo antolaketa egin dugu, amiküztarren mintzoaren hezurduran zein eratako osagaiak dauden argitu nahiz; munduko hizkuntza natural ororendako saihestu ezinak diren denbora eta espazioa aintzat hartu ditugu tipologia hau eratzeko:

3.2. Lehenik Amiküzeko ^{h}eskuaran ageri diren ezaugarri zaharrak aurkeztuko ditugu, oro har ondoko Zuberoan entzun ohi direnak, baina ohar gaitezen tasun hauetarik batzuek Euskal Herriko ekialde hertsia baino hedadura zabalagoa ukan dezaketela, izatez euskararen ezaugarri zaharrak baitira, han eta hemen berrager dakizkigukeenak:

- guk entzunik bederen hainbat hitzetan gorde diren h ondoko bokal sudurkariak
- rz, rs, rx eta nx kontsonante talde ez afrikatuak
- mugatzailerik gabeko izen sintagmak

- partitiboaren erabilera baiezko eta erlatibozko perpausetan
- genitiboaren balio destinatiboa
- osagarri zuzen genitiboaren extraposizioa
- -a- gabeko -en inesiboak
- adlatiboaren atzizkiaren -la aldaera
- aldi bakan ablatiboan -ti agertzea
- polaritate negatiborik gabe nihat 'nehorat' erakoak baliatzea
- dain astian 'datorren astean' edo daigün urthian erako aditz trinko puntukari batzuek irautea
- izan aditzean etorkizuneko -te atzizkia baliatzea
- baldintzaren protasian *edin eta *ezan oinarrietako adizkiak baliatzea

3.3. Zuberoan entzunen ditugu jarraian datozen ezaugarriak ere, baina berritzaileak dira, batzuk Erronkarin ere baliatzen zirenak; nolanahi ere den, baliatzen dituzte tasun hauek amiküztarrek ere. Xiberotar eta amiküztar elkarren ondoko jende aizoak baitira, auzokotasun hartu-emanak eta giza-errutinizazioak eragin du hizkuntza-ezaugarri hauek ukan duten eta orainokoan ere baduten geografia-hedadura. Batzuek eta besteek hizkuntza-berrikuntza hauek partekatzea giza-komunikazioaren emaitza da.

Hona gure ustean zein diren garrantzizkoenak edo gramatikan sistematikoenak:

- kaskoinaren mailegua dirudien ü fonema palatalizatua ibarraren iparreko eta erdiguneko herrietan
- i-u > ü-ü bokal sekuentziaren asimilazioa aitzinerat
- -oin > -uin & -uñ bokal hersketa
- txistukari ahostunak bokal artean, nahiz Baxenabarren ere gertatzen den hau
- bokal arteko r kontsonantearen galeraren hein bateko maiztasun gora; guk uste Baxenabarreko gainerateko ibarretan baino azkarrago den Amiküzeko ekialdean, baina Zuberoan baino ahulago
- gañan adizlaguna

- etxengo 'etxeko' erako lokatiboak —cf. Xiberoan etxenko—
- bañotek 'bakar batek' erako -ot atzizki txikigarria
- aditz trinko puntukari zenbait galdu izana
- datiboko morfema bikoizturik duten aditz laguntzaileak: zindatazün 'zenidan'
- ot(h)e partikularen extraposizioa, Arberoan ere hein batez bederen badena
- konparazio perpausetako bezainbeste zenbatzailea
- moduzko perpausetan partizipio bururatua beharrean, Amiküzeko ekialdean aditz-izena baliatzea: uai libertitzez ai zizte lanian 'orain dibertituz ari zarete lanean' (Zoho), baina ez da hau Amiküzeko ohitura orokorra, ibarreko ekialdekoa baizik; Arberoko Mehainen egitura horretan baitezpadakoa da partizipioa: hau pusatuz atheako uk
- Zuberoan bezalakoak diren zenbait hitz eta aldaera, 5.2.5. eta 5.2.10. arteko §-etan aurkeztuko ditugunak, eman dezagun: ohit nüzü 'oroitzen naiz'

Gramatikan edo sisteman hainbeste eragin ez duten ezaugarri edo aldaera berri haboro ere badira Amiküzen; ikus, errate batera, honako aditz erabilerok, Zuberoa gogora dakarkigutenak:

- juiten niz adiera puntukarian baliatzea, ohiko 'noa' adierazteko

3.4. Jarraian datozen ezaugarriok ezagunak eta orokorrak dira Baxenabarren eta baita ondoko beste zenbait eskualdetan ere; funtsean, amiküztarrak ere baxenabartarrak direla salatzen digute eta ondorioz, amiküztarren mintzoaren hezurdura eratzen ere dute:

- bokalen aferesi eta sinkopa zenbait
- ai → ei goratzea
- bait → bit soiltzea
- lexemaren mugan "herskaria + txistukaria" afrikatzea
- Zuberoa gehienean ez bezala aditz nagusiaren etorkizuneko forman bokal arteko n galtzea
- rk > rg eta -rk > -k gertakariak
- adizkietan ez + g- sandhia soiltzea

- kasu atzizkietan -aren → -ain laburtzea
- izena jokatzean plurala beharrean usu forma mugagabea baliatzea
- pluraleko izenordainean bere → beren bilakaera gertatu izana
- bat zenbatzailearen joko mugagabea
- instrumentaleko -etaz plural berria
- soziatiboko -kilan atzizki-aldaera
- hor(t)xet, han(t)xet, holaxet, heen(t)xetan, holetan, holaxetan erako adizlagunak
- leku-denborazko postposizioen sail guztia
- izenordain, zenbatzaile eta determinatzaile zehaztugabeen hainbat jokaera
- eratorpen atzizki zenbaiten jokaera
- aditz eta lokuzio batzuen balentzia eta aditz batzuen gobernu bereziak
- aditzoina ohikotasunaren adierazle izatea
- izan eta ukhan perfektiboak baliatzea
- zuketa alokutiboan mintzatzea
- d- morfema agertzea oraineko adizki alokutiboetan
- ginden, ginten / zinden, zinten erako adizki berriak baliatzea izan-en iraganean
- *ezan adizkietan zki pluralgile berria baliatzea
- bigarren pertsonaren morfeman zu & tzu aldaerak agertzea
- kausazko -lakoan atzizkia baliatzea
- perpaus konpletiboetan be(i)zik eta partikula sartzailea ibiltzea
- zehargalderan -en-ez aldaera agertzea
- xedezko amokatik eta partikula ibiltzea
- Baxenabarren orokorrak diren zenbait hitz eta aldaera erabiltzea

3.5. Badira beste ezaugarri batzuk Baxenabarren orokorrak ez direnak baina Amiküzeko endemikoak ere ez direnak eta beraz, Amiküze inguruan aurkituko ditugu, baina ez Baxenabarre guztian; hauek ere amiküztarren ʰeskuara eratzen dute:

- ta datibo morfema lehen pertsonan
- nintien 'nituen' & nintzin analogikoak
- edun aditzaren z pluralgile berria
- Nor Nori Nork sailean zt erako osagarri zuzen pluralak
- othe partikula modalaren kokagunea
- eskualdeko eta inguruko zenbait hitz eta aldaera berezi

4. Amiküzeko mintzoaren nortasunaz eta haren idatzizko agerpen berankorraz

4.1. Artean zuberotarrek eta baxenabartarrek baliatzen dituzten ezaugarri sail handi bana erakutsi ditugu, baina anitz ez izanik ere, badira Amiküzeko endemikoak diren ezaugarri berriak ere, eskualde honetako euskaran baizik ageri ez direnak, amiküztarren ʰeskuarari halako berezitasuna ematen diotenak, bertatik kanpo ageri ez diren heinean edo bertatik kanpoko herri guti batzuetan baizik ageri ez diren heinean. Mintzoaren ezaugarri hauexek dira aitzinean dugun mintzalaguna sortzez amiküztarra dela salatzen digutenak, hizkuntzaren geografian marker-tzat, salatzailetzat eta bereizgarritzat hartu ohi direnak; hona aurkezten ditugun ezaugarri endemiko haboroxenak Amiküzen gertatu berrikuntzak dira:

a) etorkizuneko atzizki -tiko ez da Baxenabarren beste inon ageri ez bada Baigorrialdean, baina ibar bateko eta besteko berrikuntza beregainak dira, ez dute inolako loturarik sorreran

b) hizkuntzalari batzuen ustez muga adlatiboko atzizkiaren -radio aldaera zaharra da: Lakarrak -ra + *din + *no berreraikitzen du (2008: 484) —ikus Santaziliaren sistematizazioa ere (2013: 268-9)—. Amiküzen ageri da aldera hau, baina inguruan kasik inon ez; Aturrialdeko Urketan eta Bardozen bada -radio eta Bardozen baita -raidio ere; Oztibarren eta Landibarren -radino ibiltzen da eta Aturrialdeko Mugerren ere bildu da alomorfo hau; Arbero alderdiko Armendaritzen -rardino entzun dugu guk

c) atzizki superlatiboa pleonastikoa da, "-en + -en + mugatzailea" eran bikoizturik ageri da:

etzin urtheik gaxtoenenak, e (Sar); arbola lodienen heek (Lab); erretreta ttipi bat, ttipienena (Arbo)

d) adizkietan aipagarri da gu morfemaren murrizketa foniko nabarmena eta are galera

ere; Labetzen bildu dugun pasartean argi dago hiztunak pluraleko **gu**-tik kontatzen duela errealitatea, higadura fonikoak morfemaren itxura **diaguk → diauk → dik** aldatu badu ere:

guk, hori, lüze-lüzia, hor miñardia baginian, bazian seiehün undo aihen hor, na gio etxekoak joan dielaik eta, anoa Españan eosten dik, laotanoita hemezortzi zæntima pinta anoa, ta, nik edaten nia, emazteak bate etik (sic) **e^{d}aten, ta eztik biziki behar, ta miñardia errotik khendü dik, ena aitan denboan ta langiliak e bagintielaik miñardia baliatü dik, e, seürki**

e) adizkietan datiboa hirugarren pertsona plurala delarik **-e(e)** morfema arruntaz landa **-ei** aldaera ere ageri zaigu eskualdean

f) bigarren pertsona pluraleko datiboaren morfema **-zite** da eta ez **-zie**; ezaugarri hau Aturrialdeko mintzoarekin partekatzen dute amiküztarrek eta Oztibarreko Donaixtin galdeginik badakigu berrikuntzak bertan oihartzun zenbait duela ere; ezaugarria singularrera ere iragan da eta 'dizute' adierazteko erabiltzen dute amiküztarrek **dauziete** ere

g) ***edin** + **-ke** adizkietan **e - e** eredua agertu zaigu Amiküzen, baina ez dirudi guztiz orokortu den ere; guk dakigula ez da eskualdetik kanpo ageri; Amendüzen **uai eneteke kapable** eta **zakhur batek bizpahirü hil ta han anbalatü zetekenez** 'zatekeenez' perpausak entzun ditugu

h) hiketako **gitzan** 'gaitun' & **gitzak** 'gaituk' & **gützak** 'gaituk' adizki berri analogikoak ageri dira eskualdean

i) aldaera lexikoetan ere badira ale batzuk erakusten digutenak Amiküzen gaudela eta ez beste inon: errate batera, **küxkandel(a)** 'surangila' aldaerako bigarren **-k-** hori, ziur aski Xiberoan sortua da, aldaera sorta honen hedadurari so egiten badiogu: **süskandea** dago Xiberoan, **suskandila** Oztibarren, eta **suangila, sugeaingira, subeaingila** edo **subebandi** Baxenabarre hegoaldean; alta, berezia da **küxkandel(a)** konbinazioa, lehen **k-** asimilatu hori Amiküzen berriztatu da, endemikoa da

Amiküzen ez dira horrenbeste ezaugarri espezifiko edo esklusibo baliatzen, guti dira darabiltzaten berezko ezaugarriak, ale endemiko guti batzuk baizik ez ditugu aurkitu; honela, bakan dira Oztibarre aldekoak, Baxenabarre orokorrekoak edo Zuberoakoak ez bezalakoak diren Amiküzeko ezaugarri endemikoak. Teorian ezaugarri endemiko hauen sorreraren balizko arrazoia, Donapaleu hiriaren inguruko gizarte-dinamikak Amiküze eskualdean eragin duen giza-errutinizazioa izan dateke, hiri honen ingurumarian iduri luke hedatu direla eskuin-ezker eta peko alderdirat, baita jende kaskoinen bizilekuak bitarteko ibarreko iparreko herrietaraino ere.

4.2. Nolanahi ere den, arestian zerrendatu ditugun amiküztarren berrikuntza espezifiko horiek, a → i artekoak, eskualdeari hizkuntza-nortasun berezi hori ematen diotenak, ez dira

testuetan berandu arte ageri; horren berankorra ote da Amiküzeko ^{h}eskuararen izaera eta nortasuna? Ez jakin.

Hurranen sailean honelako ezaugarrien adibideen sorta bat dakargu, lehen agerpen idatzien berri emanik:

- Partizipio eta etorkizun atzizkien loturako **-tuko** & **-tüko** → **-tiko** palatalizazioaren idazkietako adibide zahar bakarra XVIII. mendekoa da: **maitatico** (1786: 13), testu hartan beste adibide guztiak **-tuko** dira: **adoratuco** (13), **barcatuco** (85), **beiratuco** (13, 88), **cehatuco** (86), **gouticiatuco** (14), **ohoratuco** (13)... Ondotik ez da gehiago ageri Bourciezen 1894ko itzulpena arte: Gabadi eta Garrüzen **hartico** (Aurrekoetxea & Videgain 2004: 130, 132); Donapaleun **hartiko** (102-4)[5]

- Muga adlatiboko **-radio** aldaera ez da testuetan ageri: ez XIX. mendeko Donapaleuko katiximan —**tenoreano** (225), **bulharretaano** (227)—, ez Jauregiberriren 1891ko itzulpenean —**fundamenerano** (76); **ahi arteraino** (78)— ezta Cerquand-en XIX. mende bukaerako Oragarreko ipuinetan ere: **elizaraino** (93), **hamaketeraino** (96), **zabaleraino** (96). Bourciezen parabolan ez da muga-adlatiboko atzizkirik ageri

- Adizkiko **gu** morfemaren higadura fonikoa ez da 1894 arte ageri, haur prodigoaren parabolaren Aiziritzeko aldakiak dakar: **cantatcen dic éta irouz guitouc** (105)

- Hiketan Nor saileko **gitzan** 'gaitun' & **gitzak** 'gaituk' adizki berriak ibiltzen dira Amiküzen; Garrüzen baita **gützak** aldaera ere; XIX. mende bukaerako Bourciezen parabolan **gutzak** & **gützak** aldaerak ageri dira Uhartehirin (144), Oztibarreko Arhantsusin (149) eta Zuberoa mugako Etxarrin (129)

4.3. Badira, bestalde, testuetan berandu ageri diren edo batere ageri ez diren ezaugarri haboro ere, geografia-hedadura handiagoa dutenak; hona sorta bat:

- Izen pluralen instrumentaleko **-etaz** atzizki aldaera berria ere ez da eskualdeko testuetan ageri: cf. XIX-ko Donapaleuko katiximа: **othoitzez, barurez, limosnez, induljentziez** (242), **egin bekhatiez** (243), **egin bekhatu guziez** (245)

- Analogiak eragin Baxenabarre gehieneko **izan** aditzeko **ginden** 'ginen' & **zinden** 'zinen' edo **ginten** 'ginen' adizki berritzaileak ez dira eskualdeko idazki zaharretan ageri

5. XIX-ko Donapaleuko katiximan ez da ageri —**barkhatuko** (Pagola, Iribar & Iribar 1999a: 225), **gelditukо** (242), **juntatuko** (242)—, ezta Jauregiberriren itzulpenean ere: cf. Peillenen 2015eko argitalpenean **baliatüko** (Dassanza 2015: 73), **entretenitüko** (70), **ezagütüko** (71, 74), **freskatüko** (74), **ganzütüko** (77), **hartüko** (75), **hurtüko** (71), **khendüko** (73), **lehertüko** (76), **pikatüko** (76), **preparatüko** (72), **sendotüko** (74), **xilatüko** (75) adibideak.

- "nihork" + "-ek" ergatibo pleonastikoaren adibideak ere XIX. gizaldiaren bukaeran ageri zaizkigu idatziz, Bourciezek bildu parabolan; eman dezagun, Martxüetan **nihokec etzacocien déusic émaiten** (138) eta Donapaleun **bainan néhokec ezakoten yéous émaiten** (103)

- Nor Nori aditz saileko **zata** 'zait' erako adizkiak XIX. gizaldiaren bukaeran ageri zaizkigu. Cazenave Bithiriñako apezaren Donapaleuko katiximan ez da ageri —**emaïn zautan** 'zaidan' **penitentziaïn egiteko** dakar (225)—, baina leial irudikatu ote zen Donapaleuko mintzoa Cazenaveren itzulpen honetan? Bourciezek 1894an herrietako errientei itzularazi haur prodigoaren parabolan **zaut** dugu Amorotze eta Behaskane-Laphizketako aldakietan, baina **çatana** 'zaidana' Aiziritzekoan. Trebitschek 1913an behauztar baten etnotestuan **sü lothu zatazün** 'zitzaidan' **eskian eta oro erre** dakar (67); alta, ez da oraineko tempuseko adibiderik ageri

5. Amiküzeko lexikoa

Halako iritzi bat badabil kurri, baizik eta euskaraz dihardutenean amiküztarrek sobera ele kaskoin edo frants darabiltela, Hazparne batean edo Armendaritze batean baino maileguzko hitz gehiago ematen dutela mintzoan. Iritzi hau hala amiküztar ez direnei nola amiküztarrei berei entzun diegu eta arrazoitzat menderen mende kaskoina ondoan ukan izana eta hondarreko mendean frantsesak indar handia hartu ukana aipatzen dira. Datuek erakutsiko dute honelako zerbait badela, bai, baina hori baino anitzez aberatsago dela Amiküzeko alderdi lexikoa eta horregatik, amiküztarren ele eta aldaera fonikoen aurkezpen bat dakargu hona, osoa ez dena, jakina, baina guk uste erakusgarri izanen dena.

Datuak guk bilduak dira batzuk eta beste batzuk Euskaltzaindiaren atlasetik hartu ditugu, **EHHA** lanetik (2008-14);[6] bertatik hartuak eta guhaurek bilduak bereizteko nabarmendurik eman ditugu **EHHA**-koak; eman dezagun, Arrüetako hitz edo aldaera bat (Arrü) edo (Arrü) eran ager daiteke: lehena guk bildua litzateke eta bigarrena euskal atlasekoa. Ikerlan honetan Aranzadi Zientzia Elkartearen **EAEL** (1984-90) atlasetik edo Azkueren **Erizkizundi Irukoitza** bildumatik (1922-25) zerbait aipatzekotan, esplizituki eginen dugu.

Item eta aldaera fonikoen aurkezpena amiküztarrenak baizik ez diren horiek ekarriz hasiko dugu; horra, beraz:

5.1. Amiküzeko hitz eta aldaera endemikoak

5.1.1. Amiküztarren konpromisoa: *interdialect*

6. Atlas honetan hiztunari proposatzen zaion eta honek herrikotzat jotzen duen hitza denean, izarño bat darama gainean; ikerlan honetara dakartzagun datuetan ere agertuko dira honelako izarño bakan batzuk.

Aurkezpenaren estrategian Amiküzeko lexikoaren kokagunea aintzat hartu dugu, izan ere, bizpalau hizkuntza-eremuren bitartekari lana egiten baitu Amiküzek eta honek halako nortasun hibridoa eman dio eta ematen ere dio oraino. Eman dezagun: aldaera batzuetan Amiküze biderdi gelditu da, bi hizkuntza-eremu hedaturen artean pivotatzen erauntsi du etengabe, zubigintzan, konpromiso betean. Lehen ere agertu zaigu Baxenabarren **moltsa** 'diru poltsa' dena —hego Amiküzeko Uhartehiri eta Ostankoa barne— eskuin Zuberoan **musa** & **müsa** dela, baina Amiküze gehienean bi aldaera hauen arteko **tertium quid** dirudien **multsa** ageri dela (Ora, Amo, Mar, Zoho). **Interdialect** hau ez da ez Baxenabarreko ez Xiberoko aldaera, bien arteko konpromisoan hirugarren subjektu batek eraiki irtenbide berria baizik eta honelako aldaera berri gehiago ere aurki dezakegu.

Errate batera, Zuberoan **giltzarrapo** 'sarraila' aldaera nagusi da eta Lapurdi ekialdean eta Baxenabarreko erdialde eta hegoaldean, berriz, **zerrapo**, Oztibarre, Landibarre, Baigorrialdea eta Garazi gehiena barne, baina Amiküzen erdibideko **zarrapo** ibiltzen da, Bardoze eta Zuberoako Domintxainen bezala; bestalde, Pagola herrian —ohi bezala hau ere konpromisoan—, **giltzarrapu** eta **arrapu** aldaerak erabiltzen dira; Amiküzeko Arrüetan, berriz **zerrüra** (**EHHA**, 34110).

elkhi eta **jelki** aldaera zuberotarren eta Baxenabarreko **jalgi**-ren artean dugu Amiküzeko **jelgi** ere: (Meh / Bith, Ilh, Lab, Gab, Ame, Zoha, Zoho, Laph, Larri, Sor / Dom). Zuberoan bezala bada Amiküzen **jelki** ere (Behas, Zoho). Baina bada **jalgi** ere (Arm / Amo, Arrü, Ilh) eta **jali** ere bai (Bardo / Hel / Ora, Lük).

5.1.2. Berezko nortasuna Amiküzeko hitzetan

Amiküzeko lexikoari halako izaera berezia eta nortasuna ematen dioten ezaugarriak dira hitz endemikoak, eskualdeaz landa baliatzen ez direnak edo ondoko bazter zenbaitetan soilik ibiltzen direnak. Alderdi batetik amiküztarrekin guk izan harremanean bildu emaitza eta bestetik **EHHA** atlasak eskualdean bildua aintzat harturik, bertako hitz berezien sail bat dakargu orriotara. Ondotik Amiküzeko lexikoak ezker eta eskuin dituen mintzoekin zer partekatzen duen eta nola egokitzen eta egituratzen den ikusiko dugu, hondarreko aldian zer nolako konstelazio lexikoak eratu dituen eskualdeko geografia zabalean.

Hona Amiküzeko hitz endemikoen sail bat:

arreitzül 'behiari eskuin joateko errana' (Gar / Dom) & **arraützül** (Arbo),[7] **arteka** 'mendia

7. Arrüetan **itzul** dakar atlasak galdera ikurrarekin eta Landibarren nahiz Garaziko Gamarten ere **itzul**; Zuberoan **esküñ** eta Lapurdi-Baxenabarretan **eskuin** ibiltzen dira gehienik.

iragateko gunea' (Arrü, Gar)[8]

dauztiri 'hesiak gainditzeko eskaileratxoa' (Behau) & **dauzteri** (Arbo / Dom) & **dautziri** (Gar) & **dozteri** (Arrü)

e[ʒ]nia gala(a)zi 'aberearen umea amarengandik bereizi, higuindu' (Bardo / Arbo / Dom)[9]

gita 'ahatea' (Mar, Lab, Donap, Zoho, Arbe / Dom, Olh),[10] **gizkei** 'sukaldeko zalia' —Amiküzen entzun dugu; Bardozen **gixkei** & **kixkei** dakartza **OEH**-k—

hüxet 'abere adarzuta' (Bardo / Arrü, Gar) & **huxet** (Arbo)[11]

koka 'arrautzak berotu, txitatu' (Arrü, Gar) & **kokan** (Arbo) & **kokatü** (Gar, Arbo), **khorbe** 'ganbela, abereen egurrezko janlekua, hormari loturik' (Arrü, Gar, Arbo, Laph / Dom) —Landibarren ere bai; Oztibarren abereen jateko 'aska' da **khorbe**, ez horman dena—[12]

lits 'lursagarraren landarea' (Arbo / Dom),[13] **lobiro** 'etxe aintzina, samatsa' (Bardo / Uha, Arrü, Arbo, Zoho / Dom) & **loiro** (Gar) & **lobio** (Pag) & **lohiru** (Arbo) & **lubiro** (Lük, Dom),[14] **loila** 'urtarrila' (Arbo)[15]

---

8. Baxenabarren **lep(h)o** ibiltzen da eta Zuberoan ere bai, Pagola eta Domintxaine barne. Amiküzen **arteka** bildu da, baina Arrüetan galdera ikurra darama. Bestalde, **atheka** dago Oztibarren (Larz) eta Garazin (Gamarte, Ezterenzubi). Baigorrin galdera ikurra darama.
9. Bastidan **galaazten** eta Zuberoako Montorin **galaazi**. Arrüetan **hiundü**, **antzutia** eta **beixi** proposamen onetsia dakartza atlasak; Garrüzen **antzutu**.
10. Garrüzen baita **ahate** ere; Bardozen ere **ahate** & **gita**. Oragarreko lekukoak honela egin du gurekin mintzatzean: **etxen anixko legüma ta arr̥otze, ollasko, gi... ãhãte eta biziki eta iten gintzin, saltzen gintzin**. Zuberoan nagusi da **ãhãte**, baina Erronkarin **gita**. Berebat, Zuberoako **ahattũ** 'ahatekumea', **gita ttipi** da Amiküzen, baina Garrüzen **gita ume** dakar atlasak. Gainerateko Baxenabarren **ahate ttipi** edo **ahate piru** ibiltzen dira; Alduden **aate ume**. Bestalde, Amiküzekoa da **gita ama** & **gitama** elkarketa ere. Zuberoan **ahatama** & **ahate ama** ibiltzen da, baina Amiküzen bezala, Domintxainen **gita ama**; aldiz, Oztibarre, Garazi eta Baigorrialdean **ahate eme** ageri da.
11. Amiküze inguruan **k(h)atxo** eta **adartxut** hitzak ditugu ere eta Garazin **adarxixto**.
12. Amiküzetik landa Landibarren baizik ez dago. Lapurdin **miñeter** & **miñater** eta Baxenabarren **mañatera**. Xiberoan **arrestelie** dakar atlasak eta Xibero-erdialdean **mand[ʒ]etea**, nahiz Pagolan konpromisoan **mand[ʒ]atea** baliatzen duten.
13. Amiküzeko Arrüeta eta Garrüzen **zango** dago ere eta **aihen** dago Izturitzen.
14. Zohotan dioskutenez **hoei** metro etxeko **portaletik, ingürü hua, othe eta artho zango** uzten da bertan. Zuberoan nagusi den **barrio** eta **lobio** dira Pagolan. Bestalde, Baxenabarreko mendebalean eta Hazparnealdean bezala, Amiküzen bada **basakurte** & **basakurta** ere; Aldude eta Garazin **korle** & **korrale**.
15. Oihenart idazlearen **loila** gogorarazten digu. Trebitschek **llollan** dakar 1913an Amorotzen bizi zen bardoztar batengandik bildurik; cf. Etxebarria (1994: 69).

tunkaka 'behiak buru-ukaldika' (Arrü) & **tunkatü** (Arbo)[16]

sausi[ź]a 'lukainka' (Ilh) & **xauxixa** (Arbo, Dom) & **sausisa** (Gar),[17] **xendra** 'lasterbidea, laburbidea' (Ora, Behau) & **xenra** (Laph)[18]

zintzür 'mozteko den arbolari egin hozka' (Arbo) & **xintxur** (Arrü)[19]

5.1.3. Berezko nortasuna Amiküzeko aldaeretan

añiñer 'satanderea, erbiñudea, ogigastaia',[20] **auhal-** 'afal-' (Ora, Ilh / Dom) & **auhaldu**[21] 'afaldu' (Ora) & **auhalten** (Ora), **axerü** 'azeria' (Ilh, Arbo)

basaurde (Bardo / Ilh, Arbo, Laph / Dom),[22] **baskaiten** 'bazkaltzen' (Ora, Amo, Arrü, Sor) & **baskaiteat** (Zok) & **baskal** aditzoina (Bith) & **baskari** (Bith, Zok, Laph / Dom, Etx) —cf. Oztibarreko Jutsin **bazkaiten ari** (Videgain 1989: 1135)—, **behaztun** 'eraztuna' (Ora), **bezela** 'bezala' (Arm / Ora, Sar, Amo, Behau, Lab, Gam, Zoho / Sarkp), **buntz** 'atearen gontza, txoria, orpoa, txanga, bisagra' (Arrü, Arbo) —cf. **guntz** (Gar / Dom, Pag / Larz)—,[23] **burtxintxa**

16. Garrüzen **joka** eta Landibarren **jokatu**. Gainerateko Baxenabarren **buruka** nagusi da.
17. Arrüetan **lukinka**. Aturrialdean ere **xauxixa** mailegu hau dago, baina Bardozen **xauxika** & **xauxixka** (sic) eta Itsasun **sosisa**. Zuberoan bakan ageri da: **xauxixa** (Altzai) **xoxixa** & **xauxixa** (Dom); Pagolan **xoxixa**-k galdera ikurra du. Baxenabarren **luk(h)inka** nagusi da, baina peko aldean **luk(h)ainka** dago (Aldude, Baigorri, Ezterenzubi).
18. Baxenabarre erdigune eta hegoaldean **heinkabide** ibiltzen da eta Zuberoan **llabürbide**.
19. Ordea, Garrüzen **pikalotxa** & **oxka** dakartza atlasak. Baxenabarren nagusi da **pikalozke** & **pikalozki** edo **pikalots** era, baina ibiltzen da **ozka** Gamarte, Luzaide, Baigorri eta Alduden ere; Zuberoan **ozke** eta **oxke**.
20. Garrüzen **anddindder** dakar atlasak. Pagola barne Zuberoan nagusi da **anddee(i)**[ʒ]**er**, baina Amiküzen bezala, **añiñer** dago Domintxainen. Oztibarren **anddiar** & **anddeear** erak ditugu eta Landibarren **añddier**; hondarreko aldaera honek jarraipena du Garazin **anddiar**-ekin batean, baina eskualde honetan nagusi da **andderiar**, nahiz baliatzen diren bertan **anddibar** & **angillar** ere. Baxenabarreko hego-mendebalean aldaera osoagoak gorde dira: ***anddereder** Alduden, **anddeleder** Baigorrin eta ***anddireder** Bidarrain.
21. Bada **auhaiten** (Ora, Uha) & **auhaiteko** (Gab, Zoho) ere eta **EHHA**-k **auhaitea** dakar (Gar).
22. Hitz elkarketaren egitura osorik ageri da ondoko Izturitzen ere; gaineratekoan **basurde** dago Zuberoan —Pagolan **basorde**-rekin batean—, Lapurdiko Bardozen eta Baxenabarre zabalean, Oztibarre, Garazi eta Baigorrialdean. Beste saihetsetan, **basaurde** ageri da Ezterenzubin eta Zuberoako Larrainen, baina bietan ibiltzen da **basurde** ere. Euskal Herriko mendebalean berragertzen zaigu berriz ere osoagoko **basaurde**.
23. Zuberoan **guntz**, Oztibarren eta Garazin **gontz**, Aldude eta Baigorrin ere **gontz**, baina Bidarrain **kontz.**

'urtxintxa, katagorria',[24] **burxaz** 'bortxaz' (Arrü) & **borxaz** (Barta, Ora, Arbo, Sor)

defendio 'abereak sasoin batez sartu ezin diren soroa',[25] **deurru** 'deabrua' (Amo) & **diurru** (Uha) —baina bada **debriain** & **debriein** ere Uharten—

egurdi (Amo, Arrü, Lük) & **egürdi** (Arrü) & **eürdi** (Arrü) & **eurdi** (Amo) & **egordi**[26] (Bardo / Ilh, Lük, Zoha, Arbo / Etx) —cf. **eguerdi** (Bardo / Bith, Gar, Arbo) eta **egüerdi** (Arbe / Olh, Sarkp, Ündü, Ainh)—, **eman** 'eraman' (Behau, Bith, Zoho)—,[27] **eskaller** 'eskilarak' (Lab),[28] **espalakoin** (Behau, Bith) —cf. **eskalapuñ** (Bith, Zoho)—, **esperuñ** 'oilarrak gibelean duen azazkala'[29]

gaalla 'harri xintxola' (Gar) & **galla** (Arbo, Dom),[30] **gaphar** 'laharra, sasia' (Ilh, Arbo, Zoho) —Zuberoa guztian **khapar** dago—, **garbuts** 'gaztainaren morkotsa' (Gab, Arrü / Dom) &

24. Zuberoan **ürtxa(i)ntxa** nagusi da, baina ohiko konpromisoan **ürtxintx** erabiltzen da Pagolan. Domintxainen **burtxintxa** dago eta Garrüzen **burxintxa**; Arrüetan asimilazioak **burtxuntxa** eragin du eta elkarketak **gathübürdzantsa** Arbotin. Amiküzen bezala **b-** du ondoko Landibarrek Baxenabarren; alta, Oztibarre, Garazi eta Baigorrialdean **urtxintx(a)** aldaera baliatzen da —Ezterenzubin **urtzintza**-rekin batean—. Nafarroako ekialdean berragertuko zaigu **burtxintxa** eta Bortzirietako Etxalarren **kurtxintx**.
25. Zuberoan nagusi da **debetü**. Bardozen **defentsa** dago, Arbotin **defendio**, Arrüetan **defendiatia** eta Garrüzen **debekatu**. Landibarren **defentsa** bildu da, Oztibarreko Larzabalen **debekhu, defentsa** & **debetatu** eta Jutsin **debeku** & **defendu** proposamenak onetsi. Baxenabarre hegoaldean **debekatu** ageri da.
26. Amiküzen monoptongazioa dago, baina Baxenabarreko Oztibarre, Garazi eta Baigorrialdean **eguerdi** nagusi da eta Zuberoan **egüerdi**. **EHHA**-k Pagolan **egüerdi** eta Domintxainen **egwerdi** dakartza.
27. **EAEL**-k **ereman** dakar Amendüzen eta Zuberoako Sarrikotapean ere **eeman** bildu dugu. Zuberoan **eraman** & **eaman** & **iaman** aldaerak ditugu; guk Pagolan eta Urdiñarben **eaman** bildu dugu.
28. Zuberoan **eskelé** dago, baina Ürrüstoi eta Urdiñarben **eskeler**. Amiküzen bezala Domintxainen **eskaller** baliatzen dute eta Pagolan **eskallarak, eskallerak** & **eskaler.** Lapurdi eta Baxenabarre mendebalean **eskaler** dago eta nagusiki **eskeler** ibiltzen da Baxenabarre erdialde —Armendaritzen entzun dugu— eta hegoaldean. Oztibarren ere **eskeler**. Garazin **eskeler** & **eskaler** ibiltzen dira eta Baigorrialdean **eskaler.**
29. Zuberoan **ezpe*ũ*** dena **espeu** da Pagolan eta **aztapar** Domintxainen. Bardozen **esperun** bildu da, Arrüetan **esperuñ** eta Garrüzen **espeoiñ**. Iduria da Landibarreko **espriun,** baina Jutsin **aztapar** ageri da. Garazin eta Baigorrialdean **ezproin** ibiltzen dute, baina Gamarten **zizpita**.
30. Pagolan, Domintxainen, Arrüetan, Larzabalen, Gamarten eta Ezterenzubin **kallau**; Behorlegin **gaallo**.

garbots (Bardo / Gar, Arbo),[31] **goizetan goizik** (Arrü, Arbo / Dom) & **goiztan goizik** (Bith)[32]

heskuara (Bardo / Amo, Sar, Arrü, Mar, Altzü, Lab, Ilh, Altzü, Gab, Zoho, Sor),[33] **hürren** 'hurbil' (Behau, Arrü, Gar, Arbo / Dom) & **hurren** (Lab) & **urrendia** 'hurbildurik' (Bith)[34]

ik(h)atzile (Arm / Arrü, Arbo) —ipar Baxenabarren Amiküzen eta Arberoan nahiz Hazparnen ageri da eta Oztibarreko Larzabalen ere bai; Zuberoan **inkhatzile** dago Pagolan eta **inkhatzegile** Ürrüstoi, Urdiñarbe, Altzai eta Santa Grazin; Zuberoan bezala, Garrüzen **ikatxero** bildu da—, **ilharreski** 'ainarra, txilarra, ilarrea' (Arrü, Arbo / Dom) & **ilharresku** (Gar) & **ilharski** (Bardo); cf. **ilharroski** (Lan)[35]

kokozaika 'kakaraka, kokorazka' (Arrü, Gar, Zoha),[36] **korringo** 'arrautzarena'[37] &

31. Lapurdin **karlo**, Zuberoan **mardots** eta herrialdearen iparrean **margots**. Domintxaine konpromisoan da: **garmuts, barbuts** eta **garbuts** emaitzak dakartza eta Amiküzen bokal arteko **b** da berezia. Oztibarren **gardots** dago, baina honezaz landa **erdots** & **sokhal** ibiltzen dira Larzabalen. Aberatsa da Baxenabarreko hegoaldea: Garazin **mokots, kormots, karnots** eta **sokal** & **xokhal** ditugu, Alduden **kornutx,** Baigorrin **kormuts** & **khorbutx** eta Bidarrain **mokots**.
32. Berezkoa da Amiküzeko aldaera hau, ez da ibarretik kanpo ageri: Garrüzen **goizik** & **goizian goizik** baizik ez du bildu **EHHA**-k. Zuberoan guztietarik dago, baina **goizetan goizik** Domintxainen baizik ez. Ugari dira ideia hau adierazteko ingurumarian diren aldaerak: **argia gabe** sintagma, **goizalde** hitza, **goizik** adizlaguna...; aitor dezagun Amiküzen ere erabiltzen direla era hauek.
33. Bardozen baita **heskualdun** ere. Amiküzen adibide guztietan ez da hasperena indarrez entzuten, baina ibarreko franko herritan garbi entzuten da **h-**. Peilleni Euskaltzaindiko bilkura batean entzunik dakigu Zuberoan Santa Grazin dirauela **h-** horrek.
34. Nafarroan nagusi da **urbil**. Lapurdin, mendebaleko Baxenabarren, Baigorrialdean eta Garazin **hurbil** dago. Baxenabarreko ekialdean, Oztibarre eta Garazin **hurran** dugu eta Zaraitzuko Jaurrietan **urran** bildu genuen; Erronkari ibarreko tradizioan, berriz, **ullan** ibili da. Xiberotarrek, pagolarrak barne, **hüllan** ibiltzen dute egun, baina **hüllen** bildu da Altzürükün.
35. Bizkaiko **giñer, iñer, kiñar**, Leintz aldeko **illar,** Gipuzkoako **txillar** eta Nafarroa Garaiko **añar**, hego Zuberoan **ilharre** eta iparrean **gilharre** erraten da; Pagolan ere **gilharre** ibiltzen da. Amiküzen bada **ilharrezkiondo** (Arrü) ere. Bardozen **ilhaski** dago ere eta Aturrialdean **ilarraki** & **ilarreki**. Aldaera nagusia da **il(h)arre** Oztibarre-Garazietan, baina Luzaiden **ilarri** darabilte. Aniztasuna dago hegoaldean: Alduden ***larre,** Baigorrin **ilharka** eta Bidarrain **basilar** eta ***larreilar**.
36. Zuberoan funtsean **koko(d)ats** & **kokorats** & **kokolats** egitura dakar atlasak eta Urdiñarben **kokolatxez** entzun dugu. Erronkarin **kakaraka** dago. Amiküzeko aldaera hau ez da beste inon ageri; Pagolan **kokoratsez ai,** Domintxainen **kokoatsa** eta Arbotin **khantüz**. Gainerateko emaitzetan aberastasuna dago. Jutsin **kokhazkaz**, Landibarren **kokoatza** eta **kokoatzaz**, Larzabalen **kokohaska** eta **kokohatsa**, Luzaiden **kokoratza**, Arnegin **kokorazka**, Ezterenzubin **kokohoxka, kukuluxka** eta **kokoloxka**, Behorlegin **kokoraxka**, Gamarten **kokorika**, Uharten **kokarozka**, Alduden **kakazka**, Baigorrin **kokoloskoka**, **inharrosi** eta **kokoloskaka**. Bidarrain **karrakaz**.
37. Pagolako **gorringo** aldaera orokorra da eta Oztibarre, Garazi eta Baigorrialdean erraten dute. Zuberoan **gorrinko** dago eta Bardoze eta Amiküzen **korringo.** Domintxainen **korringo** eta **gorringo** bildu dira.

korringo ‘**Amanita Caesarea**’ izeneko perretxiko mota’[38], **kriniera** ‘zaldiaren lepagaineko ilea’ (Arrü, Arbo) & **kriñera** (Bardo) —Aturrialdean ere bai, baina Baxenabarre gehienean bezala, Garrüzen **kuma** eta Zuberoan **gima**—, **küxkandela** ‘surangila’ (Zoho)[39]

leizamin ‘liztorra’ (Bardo / Arrü, Gar / Dom, Pag) & **lezamin** (Arbo)[40]

mezinder ‘sendagilea’ (Bith, Lab, Gar, Arbo, Zoho)[41] —cf. Zuberoako **bedez*ĩ***—, **mimen** ‘zumea’ (Bardo / Arrü, Gar, Arbo) —baita Hazparnealdean eta Aturrialdean ere; Baxenabarre ekialdean eta Zuberoan **mihimen,** Domintxaine eta Pagola barne—, **mistika** ‘mertxika’ (Bardo / Arbo / Dom) & **mixtika** (Arrü, Arbe) & **miztika** (Dom) & **mistiga** (Gar),[42] **nekato** ‘neskatoa’ (Meh / Behau, Zoho)

oihen ‘oihana’ (Bardo / Behau, Sar, Arrü, Mar, Lab, Gab, Lük, Zoha, Arbo, Zoho, Laph / Dom, Sarkp),[43] **otsonahar** ‘otsolaharra, astoarrosa, basaarrosa, sasiarrosa’ (Arrü, Gar, Arbo / Dom, Pag); cf. **otsonaharlili** (Jut) —Zuberoan **basaarro[*ź*]atze** eta **basanahar** ageri dira eta Baxenabarren **otsolahar** edo **basaarrosa**—

pexil(a) ‘perrexila’,[44] **phintze** (Arbo, Zoho, Laph / Sarkp),[45] **piuñ** ‘antzararen umea’ (Arrü,

38. Bardozen ere **korringo** dago, baina Zuberoan **gorrintxa**, Pagola barne. Oztibarre eta Garazin **gorringo** nagusi da; Baigorrin **gorringo** & **onddo gorringo** ditugu, Bidarrain **onddo papoingorri**.

40. Zuberoan **lozabia** & **lozebiña** & **lozabiña** & **lozamiña** erraten dena Lapurdin **le(i)ztafin** da; Lapurdin legez **f**-duna da Baxenabarre gehieneko **le(i)zafin** era, Oztibarre, Garazi, Baigorri eta Aldudekoa; Bidarrain Lapurdi oroitarazten digun **lestafin** erraten da. Hitzaren ezkerraldea ezkerreko auzoekin partekatzen duten amiküztarrek **-m-** hori dute: ez da Lapurdi eta Baxenabarre gehieneko aldaera.
41. Ohartzen dira amiküztarrak ondoko eskualdeetan ez dela hitz hau baliatzen, berena baizik ez dutela. Bestalde, txistukaria ahostuna izan daiteke; Zohotan **me[z]inder** entzun dugu.
42. Zuberoan **peska** eta Pagolan **pexka**, baina Domintxainen ez. Lapurdi eta Baxenabarre gehienean legez, **mer(t)xika** aldaera baliatzen dute oztibartar, garaztar eta Baigorri eskualdeko hiztunek.
43. Nahiz Amiküzen ez den **oihan** falta (Arrü, Gar, Arbo), ez da **oihen** Amiküzetik kanpo ageri salbu Bardozen, eta gainera **oihan** Oztibarreko, Garazi gehieneko eta Baigorri-Bidarraiko era bakarra da; ez dakigu Arberoko Mehainen ere ez ote den **oihen** ibiltzen. Zuberotar gehienen eta pagolarren erabilera **oihan** da, baina Zuberoako ipar-mendebalean ere bada **oihen**. Peko alderdian, Luzaide-Gamarten **oian** dago eta Aldude-Uharten **ojan**.
44. Zuberoan **per(t)xill** erraten da eta Pagolan **pertxill**, baina Domintxainen **pexil.** Aturrialdeko Urketan **perxil** eta Bardoze eta Beskoitzen **peexil** baliatzen da, Baxenabarreko Bastidan legez. Oztibarren **perrexila** ibiltzen da eta Garazin **perrexil(a),** baina Uharten **perrixil**. Baigorrialdean ere **perrexil** erabiltzen dute.
45. Salaberri Ibarrolakoak ez dakar **phentze** baizik. Amiküzen bada **phentze** ere (Uha, Arrü, Gam).

Gar, Arbo / Dom),[46] **puatrall** 'zaldiaren bularraldea'[47]

saphar 'sasia' (Bardo / Zoho) —**EHHA**-k ez dakar beste inon—

tartaña 'armiarma' (Mar, Ame) & **tardaña** (Arrü, Gar)[48]

udalatu 'goldatu' (Ora) & **üdalen** 'iraulden, goldatzen' (Ilh, Zoho, Arbe / Olh, Sarkp),[49] **üdari** 'zuldarra, behiaren azala zulatzen duen gaitza' (Gar, Arbo) & **uder** (Lan, Izu, Jut, Hoz) & **uer** (Arrü) & **üdarro** (Dom) —Zuberoan bezala, Pagolan **üder**—,[50] **ülütxa** 'eltxoa' (Ame, Gar, Arbo / Pag) & **ulutxa** (Gar, Zoho) —cf. **ulitxa** (Dom) & **ülitxa** (Pag)—[51]

xitxa 'txita, xitoa' (Lab, Gar, Arbo),[52] **xitxar** 'kazkabarra' (Gar, Arbo) & **xixar** (Arrü) —Garrüzen baita **baazuza** ere—, **xurta** 'txorta, tanta' (Ora, Bith, Zoho, Arbe)

zehalo 'abereak edo jendea jotzeko makila mehea' (Arbo) & **zealo** (Gar)[53]

5.1.4. Amiküzeko alderdi batek nortasuna aldaeretan

abaña 'armiarma' (Arbo, Arbe (**Erizkizundi Irukoitza,** 1922-25) / Dom) & **amaña** (Ame,

---

46. Zuberoan **antzeũ** denari Pagolan **antxeu** eta **antxea piu** deritza, Oztibarren **piru** eta **antzera piru**. Garazin **piru** nagusi da eta Gamarten, berriz, **antzera ttipi** bildu da. Arnegi eta Baigorrin **piro** dago eta Alduden **antzara ume**.
47. Arbotin dakar atlasak eta Arrüetan **puatrin**; Bastidan **puatrail** eta Bardozen **potrail**; aldiz, Amiküze inguruko eskualdeetan legez, Domintxainen **bulhar** eta **papo**. Zuberoan **bulhar** dago eta Lapurdiko Aturrialdean **puatrin** mailegua, Itsasun legez.
48. Hitz banaren bidez Amiküzeko saihetsek ezker-eskuin lotzen dute eskualdea. Lapurdin **armiarma** dena Zuberoan **añharba** da, Pagola eta Domintxaine barne, baina Montorin bada **amañ** eta **arraño** ere. Mendebaleko Amiküze Aturrialdearekin lotzen du **tardaña**-k, Mugerre, Urketa, Beskoitze eta Bardozerekin. Baxenabarreko mendebala eta hegoaldea, Oztibarre-Garaziak, **lipu**-ren eremua dira eta Aldude-Baigorri alderdian **lupu** ibiltzen da. Goitik beheiti lotzen da Baxenabarre Arbotiko **armau**, Landibarreko **amiamau** eta Bidarraiko **amu**-ren bidez.
49. Arberoko Armendaritzen **iraulden**; Zuberoako Urdiñarben glosa hau bildu dugu: **lürrain ahatzia, ialli, batek ilduk, brabanta, brabantaekilan ützültzen bai lürra...**
50. **har** ageri da Larzabale, Garazi eta Baigorrialdean.
51. Zuberoan **eltxo** nagusi da eta horixe entzun dugu Urdiñarben. Lapurdi-Baxenabarreetan **ulitx(a)** aldaera nagusi da, Bardoze barne eta honelaxe da Oztibarre-Garazi-Baigorrialdeko eskualdeetan ere.
52. Zuberoan **txitxa** erraten da. Baxenabarreko mendebalean eta Lapurdin bezala, **xito** dago Landibarren eta Baigorrialdean, baina **xita** aldaera Oztibarre-Garazietan.
53. Zuberoan **zahãu** dago, baina Domintxainen **zahalo**; Baxenabarreko mendebalean **za(h)aro** eta ekialdean **za(h)alo**; Bardozen, **zahalo**, Mugerren **zaharo** eta Beskoitzen **zeharo**.

EAEL)[54]

haitz 'arbola, zuhaitza' (Gar / Dom) —cf. haitz 'haritza' 5.2.2. §-n—; baita arbole ere (Dom)

ixañ 'izaina' (Arbo, Gar),[55] ihauzka 'zaldi jendea lurrean iraulka aritzea'[56]

khadeña 'behia lotzekoa'; bada kadena ere[57]

mindi 'mendia' (Zoha, Arbo, Zoho, Laph, Sor / Dom, Ber, Arüe); cf. mendi (Hel, Arm, Meh / Ora, Behau, Ost, Uha, Arrü, Arbo, Arbe / Sarkp),[58] miuñ 'mirua' (Arrü)

Eskualdean nagusitu ez diren eta anekdotikoak diruditen aldaerak ere agertu zaizkigu Amiküzeko elkarrizketetan:

buzkalentzia 'bozkalentzia, poza' (Arbe)

54. Zuberoako Montoriko amañ-en eite du —bada arraño ere Montorin— Amiküze iparreko abaña & amaña aldaerak; gaineratekoan ez da honelakorik inon ageri. Mendebaleko Amiküze Aturrialdearekin lotzen du tardaña-k, Mugerre, Urketa, Beskoitze eta Bardozerekin. Baxenabarreko mendebala eta hegoaldea, Oztibarre-Garaziak, lipu-ren eremua dira eta Aldude-Baigorri alderdian lupu da. Baxenabarre ipar-hego lotzen da Arbotiko armau, Landibarreko amiamau eta Bidarraiko amu-ren bidez.
55. Aldiz, Arrüetan etxaint & etxaina eta Domintxainen itxaña. Gipuzkoan izañ, Lapurdi hego-mendebalean xintximari, Lapurdi barrenean odoleoskile & odoledale eta Zuberoan nagusiki zizañ dena, xixañ da Pagolan, guztizko konpromisoan. Afrikatua nagusi da Baxenabarren: Oztibarre eta Garazin itxain & basaitxain aldaerak ibiltzen dira eta itxain dago Baigorrin, baina itzain Aldude-Bidarraietan.
56. Gipuzkoan zaldaliak irabazi erraten zaio eta mendebalean garagarrak irabazi. Lapurdin nagusi da iharroska eta Baxenabarren ihalozka, baina Zuberoan bi ele baliatzen dira: itzilteka eta ützülharrikan. Pagolan ihaloska eta ütsülarrika bildu dira eta Domintxainen inharroska. Amiküzen Arbotin ihauzka eta Arrüetan ihauska & ihaunzka dakartza atlasak. Oztibarren ihalozka baliatzen da eta Garazin ihaloska aldaera nagusi da, baina Luzaiden itxaloska erraten dute, Behorlegin itsaloska eta Gamarten iharrozka; Uharten, berriz, itzulipurdika, *jaloska eta *jaloskatu ageri dira. Oparoa da hego-mendebala: Alduden ildoska, Baigorrin itzaloska eta Bidarrain itzoroska ibiltzen dira.
57. Hazparnen kadena eta Izturitzen khaden ditugu, Arrüetan kadena, Arbotin khadiña, khadañak & khadeña eta Domintxainen khaiña & khadeña. Ipar-Zuberoan legez, Pagolan khatiña. Baxenabarre erdialdean legez Garrüzen kadiña dago, Jutsi eta Larzabalen khadiña eta Landibarren kadina. Garaziko Behorlegi eta Ezterenzubin ere k(h)adiña baliatzen da eta Uharte-Gamarteetan k(h)adina. Luzaidek, Aldudek eta Baigorrik gatina dute, Arnegik kadena, Baigorrik katin & *khadina eta Bidarraik gate.
58. Arberoan, Amiküze gehienean, Xiberoa gehienean —Pagola barne—, Oztibarren, Garazin eta Baigorrin mendi baliatzen dute. Salaberri Ibarrolakoak ez dakar hiztegian mendi baizik.

erain 'erein' (Arrü),[59] **ergal** 'elkar' (Uha) & **ergaletaatu** (Uha)

napait 'norabait' (Arrü); erabilera nagusiak **noapeit** (Arm / Ora, Amo, Behau, Zoho / Olh) & **noapait** (Sarkp, Urd) dira

xuikita 'xuriketa, arropa garbitzea' (Behau); Arberoko Mehainen **xuiketa**

5.2. Amiküze eta ondoko eskualdeetako lexikoa

5.2.1. Ipar Euskal Herri barnealdeko hitzak Amiküzen

Zuberoakoak ez bezalako item lexiko orokor franko ageri dira Amiküzen, Baxenabarren nagusi direnak; Nafarroa Beherearen eskuineko saihetsean egonik ere, usu jotzen du Amiküzek Baxenabarre zabaleko joeretara. Egiazki, ekialdekoak ez diren ezaugarriak partekatzen ditu Amiküzek ondoko mintzo baxenabartarrekin. Hona adibide zenbait:

aatxe 'aretxea' (Meh / Behau, Lab / Sarkp) & **aªtxe** (Laph) & **atxe** (Laph) —cf. **xãhãl** (Sarkp), **xahãl** (Ündü) & **xahal** (Ainh); aldiz, bada **xahaldun** Amiküzen, Laphizketan entzun dugu—, **ahaide** (Bith),[60] **ai(n)tzinaire** & **ai(n)tzinaize** 'ekialdeko haizea', **alainan** —adiera ilatiboa du eta **ba** partikula eramen dezake ezker— (Arm / Ora, Amo, Behau, Arrü, Mar, Gam, Donap) & **alaina** (Ora, Amo, Lab), **alta** aurkaritza balioa duen partikula (Ora, Amo, Behau, Mar, Lab, Ame, Zoha, Donap, Zoho), **andana (at)** (Arm / Ora, Behau, Arrü, Mar, Lab, Gam, Donap, Arbe, Sor / Olh, Arüe, Pag) & **andanaxka** (Sor), **aphoosto** '**Arctium minus** landarea',[61] **azantz** 'zarata' (Bith, Zoho, Arbe)[62]

basaphorrü '**Galanthus nivalis** landarea',[63] **beha** 'zain' (Arm, Meh / Behau, Donap, Arbe / Pag) —baina **behatü**-k badu Zuberoan legez entzute adiera ere Amiküzen (Laph)—

dala 'teilatuko delako **canal / chéneau** zatia'; Baxenabarre hegoaldean **kotera**

eleka ari (Amo, Bith, Lab, Ilh, Zoho, Sor) & **elheka** (Ora, Amo, Arrü, Ilh, Lük, Ame, Donap) & **elhekatü** (Zoho) & **eleketan** (Arm / Arbe); cf. Zuberoan **elhesta** (Oih, Pag) & **elhestan** (Urd) & **elhestatü** (Urd) & **elhestakatzez** (Urd)

---

59. Nagusi da **erein**: **erein** (Zoho), **ereiten** (Amo, Mar, Gam, Zoho), **ereitzetik** (Laph); cf. **ereen** (Ilh) ere. **Erizkizundi Irukoitza**-k **ereiten** dakar (Arbe).
60. Baina ez da nagusi Amiküzen; cf. **azkazi** (Behau, Bith / Sarkp) eta **askazi** (Arbe / Ündü, Urd).
61. Bada Bardozen, Makean, Jutsin edo Ezterenzubin ere. Zuberoa eta Baxenabar gehienean **lap(h) atina**, baina Hazparnen eta Arberoan **ohoin**; Armendaritzen baita **ohoinlili** ere.
62. **Erizkizundi Irukoitza**-k **azants** dakar Arberatzen (1922-25).
63. Baita **basatipula** Arrüetan ere. Ondoan **otsoporru** dago Makea-Izturitzen, **basatipula** Landibarre & Armendaritzen eta **anbulo** & **anbula** Baxenabarre erdialde eta hegoaldean.

fitsik 'deus ere' (Arm / Ora, Amo, Bith, Uha, Gam) & **fritsik** (Uha, Lab, Ame / Arüe) & **pitxik** (Behau)

hodei 'erauntsia, ekaitza' (Arrü) & **odei** (Arbo, Zoho, Laph) & **hodeiaire** (Gar); baita **galerna** ere (Arrü),[64] **hotseman** 'abereen aitzinean joatea' (Ilh) & **otsemaiten** (Mar) & **hotsemaile** 'abereak alorrean hotsez gidatzen dituena' (Laph) & **otsemailea** (Mar)

iakoitz 'larunbata' (Meh / Amo, Behau, Uha, Arrü, Mar, Lab, Ilh, Gam / Etx, Olh, Sarkp, Loh, Pag) & **iiakoitz** (Pag) & **ihiakoitz** (Olh) & **ibiakoitz** (Arm / Arbe) & **ebiakoitz** (Pag) & **eiakoitz** (Sarkp) —cf. **neskenegün** (Sarkp) & **nexkenegün** (Sarkp) & **neskeneün** (Oih, Pag)—, **ikhatz** 'behien eritasun bat',[65] **irian** 'ondoan, aldean' (Arm / Ora, Sor), **irri** 'barrea' (Arm, Meh / Bith, Sor / Pag) —cf. **erri** (Zoho / Ith, Sarkp, Pag)—

kalapitan (Bith), **kallu** 'zerriaren azala' (Gar) & **kallü** (Arrü, Dom) & **kailü** (Arbo) —baita **kalla** eta **kailla** ere (Arbo)—, **karlos** 'mutilzaharra' (Barta / Arüe), **kilikan** 'sentibera' (Zoho), **kinkili-kankala** 'baldar ibiltzea' (Arbe), **komesa** '-z mintzo' (Uha / Pag), **kokin** 'maltzurra' (Behau, Bith, Donap) —adieraz bedi kasu honetan Zuberoan ere badela **koki** & **kokin**—

labasi 'erauntsia, euri jasa' (Gar, Arbo, Zoho)

mando 'ardi antzua, dehota', **muthil** 'morroi joan ohi dena' (Arm, Meh / Amo, Behau, Bith, Ilh, Lab, Laph) & **mutil** (Mar)

naski 'dirudienez' (Ora, Behau, Bith, Gam / Sarkp)

ondo 'arbola gerria, trunkoa, nadia' (Gar, Arbo / Dom, Pag) —baita **trunko** (Arbo / Dom, Pag) eta **billun** ere (Arrü, Arbo)—, **otte** 'kilkerra' (Arm / Arrü, Gar, Arbo / Dom / Lan, Jut, Larz) & **otthé** (Pag) —'matxinsaltoa' ere adierazten du hitz honek Baxenabarre guztian—, **otto** 'osaba' (Behau, Bith, Gam, Donap, Laph / Olh, Arüe)

putar 'zaldiaren ostikoa' (Arm / Arrü / Dom, Pag / Jut, Larz)

tole 'nahi bezainbat' (Behau, Ame)

64. Zuberoan **tenpesta** (Dom) eta **oa[ʒ]e** ageri dira eta Lapurdi gehienean **kalerna**; Baxenabarreko erdi eta hegoaldean indartsu dago **ortzantz**, Amiküzeko Garrüze barne. Euskal Herriko mendebalean ere bada **odai euri** edo **odei zaparrada**, hego-mendebaleko Zollo, Zeberio, Orozko herrietarik hasirik Gipuzkoako Legazpiraino —**odei**— eta Nafarroa Garaian Ergoieneko Dorraoraino: **odoi**.

65. Lapurdin ere nagusi da **ikatz**. Bizkaian **karbunko** & **kabrunko** mailegua erraten da, Gipuzkoan **lipu**, Nafarroan eta Baxenabarren **satar** eta Zuberoan **lüpe,** baina Domintxainen **ikhatz** eta **sathar**. Amiküze ondoko Baxenabarren **mingaixto** ibiltzen da, Arrüeta barne eta Garrüzen bada **satar** ere.

phindar 'txinparta' (Zoho),[66] **plano** 'ordokia, leku zelaia' (Uha, Mar),[67] **poxulu** 'behaztopa, oztopoa' (Meh / Amo),[68] **primadera** (Arm / Amo, Uha, Ilh / Pag), **punpeka** 'jauzika, errate batera zaldia edo gurdia' (Ora, Behau / Dom) & **punpaka** (Arrü / Pag)

uhar 'euri jasa, zaparrada' (Arm / Arrü, Gar, Arbo)[69]

5.2.2. Ipar Euskal Herri barnealdeko aldaerak Amiküzen

Aldaera lexiko hauek Amiküzen entzun ditugu eta ez dira Zuberoan ageri direnak berak, dela Zuberoakoek beste aldaketa bat jasan dutelako, dela Zuberoan lehengo izaerari eutsi dioten hitzak Amiküzen berriztatu direlako; hona sorta bat:

a(a)txebürü 'zapaburua',[70] **aitatxi** 'aitona' (Arm / Behau, Arbe / Dom, Olh) —Laphizketan **aitatxi** eta **attatti**, biak ageri dira; Bithiriñan dioskute **uaiko gaztek** "aitatxi" erraten dutela, **guk** aitañi **erten gintzin**, eta **attitti** ere ibiltzen dute ohiko mintzoan—, **alfor lanak** 'udako lanak, lurra bero denean' (Uha), **amatxi** 'amona' (Arm, Meh / Behau, Laph / Dom) —cf. **amañi** ere (Bith, Gab)—, **aneia** (Arm, Meh / Ora, Amo, Bith, Uha, Mar, Lab, Gam, Arbe / Olh, Oih), **ano** 'ardoa' (Arm, Meh / Bith, Ilh, Uha, Arbe), **araiz** (1) 'nonbait, dirudienez' (Behau, Bith), **araiz** (2) 'zinez, egiazki' (Uha), **arront** 'guztiz' (Uha), **asteharte** (Lab, Zoho / Olh, Pag, Ündü),[71] **astelegunaz** (Amo), **astezken** (Arm / Bith, Arrü, Mar, Gab, Ame, Zoho), **atsalde** (Arm, Meh / Amo, Behau, Uha, Bith, Lab, Ilh, Arbo / Etx, Olh, Arüe, Sarkp, Oih, Ainh, Pag), **atxiki** (Arm, Meh / Amo, Behau, Bith, Uha, Mar, Lab, Ilh, Zoho, Laph / Olh, Sarkp, Pag) —cf. **etxeki** (Urd)—, **aurdiki** 'jaurtiki' (Bardo / Arm, Meh / Arrü, Mar, Gar, Arbo, Zoho),[72] **ausmarria** 'hausnarra' (Gar, Arbo) & **ausmarria in** (Arrü) & **ausmarren** 'hausnar egiten' (Arbo); cf. **ausmaarri** (Arm)

bana 'baina' (Arm / Ora, Bith, Ost, Uha, Lab),[73] **behor** (Meh / Ora, Bith, Uha, Arrü, Mar,

66. Amiküzen, Baxenabarre guztian eta Lapurdi gehienean ibiltzen da.
67. Uztaritze, Hazparne eta Aturrialdean ere **plano** erraten da. Zuberoa-Baxenabarrekoa da funtsean **ordoki**.
68. Zuberoan ezezaguntzat eman digute; Larrasketek dioenez, etxe izena eta deitura da **Püxülü** Zuberoan.
69. Armendaritzen **euri uharra ari da** bildu dugu.
70. Ipar Euskal Herriaren iparraldean gaindi hedatzen da: Mugerre, Hazparne, Izturitze, Bardoze, Arboti eta Domintxainen (**EHHA**). Zuberoan nagusi da **xahalboka**, Pagola barne; aldiz, Eskiulan **xahalbü** eta Jaurrietan **xalburu**. Oztibarre eta Garazin zabal dabil **buruzaal** —Landibarre eta Larzabalen **zipaburuzaal**—. Luzaiden **apozaal,** Behorlegin **zipa,** Gamarten **lolo,** Alduden **apotxali,** Baigorrin **apotzale** eta Bidarrain **aatxiigel**.
71. Atlasak Baxenabarreko Landibarren eta Zuberoako Altzürükün dakar ere.
72. Makea, Izturitze, Oztibarre edo Garazin **aurt(h)iki**.
73. Labetze da Amiküze erdialdeko salbuespena: herri honetan **bena** entzun dugu etsenplu kasik guztietan, baina agertu zaigu **bana** ere; saihetseko Oragarren eta hegoaldeko herrietan dago **bana**.

Zoho, Arbe) —cf. xiberotarren **bohor**—, **bekada** 'oilagorra' (Arrü, Gar, Arbo / Dom, Pag) —baita **pekada** ere (Dom)—,[74] **berdin** (Arm, Meh / Amo, Behau, Bith, Uha, Arrü, Mar, Lab, Gam, Arbo, Arbe) —cf. **bardin** 5.2.8. §-n)—, **berenez** (Mar, Ilh), **berret** 'apotea, aketza, umea egiten duen zerri arra' (Arrü, Gar),[75] **bihamun** 'biharamuna' (Urketa, Bardo / Arm / Bith, Uha / Jut, Larz, Zib, Ibarro, Donaix) & **bihaamun** (Ibarro) & **biaamun** (Meh) & **biamun** (Ilh) & **bihamon** (Ora), **bokheta** 'arroparen garbialdia ibaian' (Meh) & **bokhata** (Ost, Uha), **buxer** 'harakina' (Arrü, Gar, Arbo)

ddantza 'dantza' (Arm / Arrü),[76] **deizte** 'abereak jaistea' (Ora), **dilindan** 'zintzilik' (Arbe), **dorphe** 'pertsona baldarra' (Bith), **dupina** 'jan egosteko ontzi mota bat' (Behau) —cf. **düphüña** (Zoha)—

edaki 'irakin duena' —**ur edakiekin**— (Amo), **elgar** 'elkar' (Arm, Meh / Amo, Behau, Bith, Mar, Ilh, Lab, Arbe, Sor, Laph / Dom, Olh, Loh, Oih, Pag) —Uharten **ergal**; cf. **algar** (Urd)—, **emazteki** 'emakumea' (Arm / Amo), **euri** (Arm, Meh / Bith, Uha, Lab, Zoho, Laph / Olh, Loh, Pag) —cf. **ebi** (Urd)—, **ezik** (Amo),[77] **ezontsa** (Arbe) & **ezuntsa** (Uha) & **e[z]untsa** (Laph)

fidea 'fedea' (Bith),[78] **frango** 'franko, anitz' (Arm, Meh / Ora, Amo, Bith, Ost, Arrü, Mar, Lab, Ilh, Ame, Zoha, Arbe, Sor, Laph / Olh, Loh)

gaixtaginik (Arrü), **gañatikoa** 'gainerakoa' (Lab) & **gañetiko** (Amo), **gasna** 'gazta' (Arm, Meh / Behau, Bith, Uha, Arrü, Lab, Gam, Zoha, Arbe, Sor / Dom, Olh, Pag) —cf. **gazna** (Urd)—, **gauherdi** (Arrü)

haitz 'haritza' (Meh / Ora, Bith, Arbe / Arüe), **hamoost** 'hamabost' (Arm, Meh / Ora, Bith, Arrü, Mar, Lab, Ilh, Ame, Gam, Zoho, Arbe, Sor / Dom, Etx, Olh, Arüe, Sarkp, Ündü, Pag)

74. Zuberoa guztiko da **azaia,** Pagola barne. Aturrialdean, Hazparne-Itsasun eta Baztango ekialdean ere **bekada** ageri da; aldiz, Oztibarre, Garazi eta Baigorrialdean ez da **pekada** & **phekada** era baizik ibiltzen.
75. Gamarten ere **berret** bildu da, baina Oztibarren **perret**; Zuberoan **berrat** erraten da, Pagola, Domintxaine eta Amiküzeko Arboti barne. Gipuzkoa ekialdean, Nafarroa Garaian, Lapurdin eta Baxenabarre gehienean legez, **aketz** dago Baxenabarre hegoalde guztian, Garazin eta Baigorri eskualdeetan, Aezkoan legez. Bada, bestalde, **herauts** edo **ehauts** Landibarre, Ezterenzubi eta Gamarten.
76. Orokorragoko **dantza** ere bada Amiküzen (Ora, Amo, Bith, Arrü, Mar, Ame, Gam, Arbe). Zuberoan ere **dantza** bildu dugu (Dom, Olh, Loh, Sarkp, Pag, Urd) eta halaxe dakar Larrasketek ere: **dantza**.
77 Honako erabileran: **ez, ez ezi**ᵏ**, bon, egun batendako ta ola.**
78 Lopez oztibartarraren 1782ko **Pratica** itzulpenean bi aldiz ageri da **fide** eta hogeita zortzi aldiz **fede**.

—baina **hamabost** (Urd), Larrasketek bezala—,[79] **haragi** (Ilh) —xiberotarrek **h-** gabe—, **hea** 'ea' (Bith), **heaztei** erdal 'corbeau / alero' (Arrü / Lan), **hemen** (Arm, Meh / Bith, Lab, Arbe), **hipaka** 'negar zotinka' (Zoho)[80]

ihortziak 'ehortziak' (Bith), **ikhatzile** 'ikazkina',[81] **ilar xehe** 'ilarra' (Arrü, Gar) & ***ilhar xehe** (Lan) —cf. **ilhar biibil** (Arbo), Zuberoan bezala—,[82] **intzun** 'entzun' (Bardo / Arm / Barta, Ora, Amo, Behau, Bith, Ost, Uha, Ilh / Olh) & **intzün** (Lab, Zoha, Donap, Arbe / Pag) —cf. saihetsetan **entzun** (Ora, Beh) & **entzün** (Zoho) [83]—

jali (Hel, Bardo / Ora, Lük) & **jalitzen** (Lük) & **jalgi** 'irten' (Arm / Amo, Arrü, Ilh) & **jalgiten** (Arrü) —cf. **jelgi** ere (Meh / Bith, Ilh, Lab, Gab, Ame, Zoha, Zoho, Laph, Larri, Sor / Dom); Zuberoan bezala bada Amiküzen **jelki** ere (Behas, Zoho)—, **jarrikaazten** 'jarraikarazten' (Arrü), **jela** 'alorra hersteko ataka' (Arrü),[84] **Jingo** 'Jaungoikoa' (Arbe),[85] **Jondone** & **Jondoni** (Arrü)[86]

kondu —**aphez kondu re**— (Behau), **khotsu** 'pixka bat' —**khotsia** forman— (Arm, Meh / Ora, Behau, Gam)

---

79. Baina Basabürüko Gameren **amostean** dakar Otsibarrek (2003: 75).
80. Lekuko zohotarrak diosku ez dutela **zipha** ibiltzen, nahiz **OEH**-k **zipha** dakarren Amiküzen; hiztegi horren arabera, iduri luke Zuberoan **zipha** dela nagusi.
81. Nafarroa Garaiko ekialdean eta Lapurdi-Baxenabarretan nagusi da **ik(h)azkin** aldaera eta zuberotarrek, berriz, **inkhatxeo** ibiltzen dute. Ohiko konpromisoan Pagolan **inkhatzile** eta **inkhatxeu** ibiltzen dira eta Domintxainen ere halako **interdialect** era da **ikhatzero**; berebat, Garrüzen **ikatzero** bildu da. Bastidan ere **ikhatzile** ageri da eta Larzabalen hirukoitza da bilduma: **ikhatzile, ikhatxero** & **ikhatzero**. Oztibarreko Jutsi, Landibarre, Garazi eta Baigorri eskualdekoak aldaera nagusi **ik(h)azkin**-en erabiltzaile dira.
82. Lapurdiko Aturrialdean, Hazparnealdean eta Izturitzen ere bai. Landibarren proposamen onetsia da. Zuberoan bezala, Baxenabarren nagusi da **ilar biribil** aldaera eta Lapurdin **etxilar**.
83. Zohotan baita **üntzün** asimilatua ere.
84. Arrüetan baita **xela** ere; Amiküzen aita-amak arberoarrak zituen lekuko behauztar batengandik entzun dugu **xehela**. Baxenabarren **xeila**, **xehe(i)la** & **xeheilla** ditugu eta Zuberoako Urdiñarben **xehela** & **kehella** bildu ditugu. Mendebalera doa **jela**: Hazparne, Izturitze, Bardoze eta Bastidara, baina Larzabalen ere **jela** ageri da eta Beskoitzen **gela**. Zuberoan **kehella** & **kihilla**; Pettarrean baizik ez dago **xehela**. Sarrikotapean **kheta** bildu dugu eta Urdiñarben **kehella**: **lehen egürrez eginik zitia, oai bürdüñez beitia, hanitx, bena egürrez eginik dienak tütük xehelak, bestelan bürdüñez dienak "portalik" deitzen tiagü** (Urd). Pagolan honela entzun dugu: "**xehela" gük erraiten dizügü "kheta", "xehela", bai, "xehela" xübeatar düzü, bai, nik uste, ba eta segür e.**
85. Lopez iutsiarraren XVIII. mendeko **Pratica** itzulpenak bost aldiz dakar (1782: 35, 38, 57, 112, 422).
86. **OEH**-k aberats aurkezten digu Amiküze: **Jandoni, Joandene, Jondane, Juandane, Juandene** eta **Juandoni**. Zuberoan **Jundane** & **Jondane**.

leizar 'lizarra' (Bardo / Uha, Arrü, Gar, Arbo / Dom, Pag)[87]

motzale 'mozten duena' (Ora)

noiztenka 'noizbehinka' (Meh / Zoho)

ohite 'oroimena' (Gam) —cf. **nik ja gure ohitian**—, **oixtian** 'arestian' (Amo, Behau, Mar, Lab, Gab, Gam, Zoho, Sor)

paatu 'ordaindu' (Meh / Amo, Behau, Bith, Uha, Lab, Arbe) & **patü** (Lab) —cf. **pakhátü** Zuberoan—, **pazko** (Bardo / Amo, Behau, Sar, Zoko, Arrü, Gar, Arbo / Dom) & **phazko** (Arrü),[88] **phesta** 'jaia' (Arm, Meh / Ora, Amo, Behau, Bith, Arrü, Mar, Altzü, Lab, Ilh / Dom, Etx, Olh, Loh, Arüe, Sarkp, Oih)—cf. **besta** (Ündü, Pag, Urd)—, **phestaberri** '**Corpus Christi** eguna',[89] **poloka** 'puloka, multzoka' (Behau), **poxi (b)at** 'pixka bat' (Arm, Meh / Behau, Ost, Arbe) & **puxi bat** (Arrü) & **puxü at** (Behau) —cf. **buxi bat** (Urd)—,[90] **pullit** 'ederra' (Ora, Arbe), **puthiko** (Ora) & **putiko** (Behau)[91]

sasoi 'garaia' (Arm / Amo) & **sasoin** (Meh / Lab / Loh) & **sasoñ** (Ost, Sor) & **sasoñik** (Ora) —cf. **sa[ź]u** (Ündü, Pag) & **sa[ź]ũ** (Ainh) & **sa[ź]uin** (Urd) & **sa[ź]uiña** (Pag)—, **sohallü** 'belar idorra gordetzeko etxe ondoko eraikuntza' (Ilh, Arbo) & **soallü** (Sarkp) & **soallia** (Gar) & **sohallan** (Amo) —Landibarren **sabai** eta **soallu** dakartza **EHHA**-k eta Bardozen **selhauru**—[92]

zalhü 'arin, bizkor' (Zoho / Olh) —cf. **zalhe** (Urd)—, **zendako** 'zergatik' (Ora, Bith, Ame)

87. Lapurdi itsasaldean eta Bidarrain **lizar**; Lapurdi barnealdean, Aturrialdean eta Baxenabarren **leizar**; xiberotarrek **lexar** erraten dute.
88. Eremu zabalean ageri da aldaera ahoskabea: Lapurdiko ekialdearekin bat eginez **pazko** dakar atlasak ipar Baxenabarren, Landibarre eta Larzabale barne. Aldiz, Zuberoan bezala, Pagolan eta Jutsin **bazko** aldaera ahostuna dago. Era hau bera dago Baxenabarre hegoaldean —Aldude barne—, Nafarroa Garaiko ekialdean eta Lapurdiko mendebal guztian ere, baina Baigorri-Bidarraietan **pazko**.
89. Baxenabarre iparraldean eta Lapurdiko ekialdean —Aturrialdea barne— baliatzen da aldaera hau eta hegotik Garaziko Gamarte eta Oztibarreko Larzabaleraino heltzen da, Landibarre barne. Zuberoa guztian, Pagolan eta Oztibarreko Jutsin **bestaberri** dago, baina Domintxainen **bestaberri** & **pestaberri**.
90. Zuberotarren aldaera **boxi** dela diosku **OEH**-k.
91. Zuberoan **potiko** ibiltzen da, baina **Charlemagne** pastoralean **putiko** ageri da.
92. Bardozen hitz bukaeran **-u** ala **-i** den ez da garbi, eta bestalde, beste lekuko bardoztar baten ustez ez da herriko hitza.

5.2.3. Baxenabarre ekialdeko hitzak Amiküzen

Sail honetako hitzak Baxenabarreko ipar-ekialdean edo ingurumarian bildu dira, Oztibarren eta goitixeago Amiküzeko eskualdean edo ingurumarian:

artzaiñizar 'artizarra, goizeko izarra' (Bardo / Arm / Gar / Lan); Arberoan ere ageri da

dala 'teilatuko ura jaisten den hodia' (Arrü, Gar, Arbo / Dom, Pag / Lan, Jut, Larz); baita **zenga** Arrüetan eta **gutiera** Pagolan ere

kixkarratu 'zerriaren azala erre' (Gar —proposamen onetsia—, Lan, Jut, Larz) cf. **kixkarratü** (Dom, Pag) —Garazin ere bai; Zuberoan oro har **txokhartü**—, **kokatra** 'sortu den txita multzoa' (Arrü, Gar, Arbo / Dom) —aldiz, **kookatra** (Jut), Pagolan **kokatá**—,[93] **kuduiñ** 'irasagarra' (Gar) & **khuuñ** (Arbo) & **khuduñ** (Dom, Pag) & **kuduñ** (Jut) & **kuduiñ** (Lan)

mando 'delako behi **nymphomane**' (Arrü, Arbo / Lan, Jut, Larz); ageri da Lapurdiko Mugerren eta Makean nahiz Arberoan ere

patitü 'jasan, sufritu',[94] **pularda** 'oilanda' (Arrü, Gar, Arbo / Larz) & **pullarda** (Dom / Jut)[95]

traimü 'bi haberen arteko tartea' (Arrü) & **tranü** (Gar / Dom) & **tramu** (Jut, Larz) & **tramü** (Pag); hego Zuberoan **sumearte**

urde hiltze (Bardo / Bith, Arrü, Mar, Lab, Gar, Arbo / Dom, Arüe, Pag / Lan, Jut, Larz); baita Lapurdiko Aturrialdean eta Arberoan ere; dena den, **zerri hiltze** edo **xerri hiltze** ere baliatzen dira Amiküzen

xamango 'txongoa, txungurra' (Arrü, Gar, Arbo / Lan) & **[ʒ]amango** (Dom) & **[ʒ]amangoki** (Dom) & **xamalgo** (Larz)

93. Amiküzeko **(ollo)kokatra** bezalakoa da Oztibarreko Jutsiko **ollokookatra** & **kokatra.** Zuberoa gehienean legez Pagolan **kokatá** dago, baina Domintxainen **ollokokatra**. Landibarre eta Larzabalen **xitandana** dago, Gamarte eta Baigorrin legez; bestalde, **xitaldi** & **xita alde** ageri da Baxenabarre erdigune eta hegoaldean. Peko alderdian **ateraldi** dago Alduden eta **hazaldi** Luzaiden.
94. Lopez oztibartarraren 1782ko **Pratica**-n bezala: **pati-aracico dereat gossia, egarria, hotzça eta berua, eta kargaz akit-aracico, amorecatic hire ppenen jassaithiaz aboro ocupa hadin** (385). Frantsesezko **pâtir** da. Zuberoan eta Ipar Euskal Herriko idazle gehiagorengan ageri zaigu. Tartasek **Arima**-n dakar, Ibarrolako Salaberrik badarabil eta Gèzek ere bai. Bazkazaneko predikuetan ere ageri da: **patituco du establia batian sasoinetaco rigorosena** (Orpustan 2005: 213).
95. Zuberoan **ollanta** erraten da, Pagola barne eta Domintxainen **ollanda**. Amiküzen ere bada **oilanda** Arrüetan eta Garrüzen ***ollanda**. Oztibarreko Jutsi eta Larzabalen **ollanda** diote ere. Landibarren, Ezterenzubin eta Baigorrialdean **oilanda** eta Garazi gehienean, berriz, **ollanda**.

zeru zahar 'atertzean ikusten dena' (Arrü) & **zelü xahar** (Arbo / Pag) & **zerü xahar** (Dom) & **zeru xahar** (Larz); Garaziko Gamarten ere **zeru xahar**

5.2.4. Baxenabarre ekialdeko aldaerak Amiküzen

Sail honetako aldaerak Amiküzeko eskualdean eta Oztibarren ageri zaizkigu, baina inoiz baita Arberoan ere; franko aldaera **EHHA** egitasmotik harturik dakartzagu, baina guztiak ez:

argizaite 'ilargia' (Uha / Larz, Donaix) & **argizaitu** (Lan) & **argizeitu** (Jut),[96] **arthei** 'neguan ardiak gauez etxe inguruan gordetzeko lekua' (Gar, Arbo / Dom) & **artei** (Arrü / Jut, Larz) —Pagolan **arditei**—, **auhari** 'afaria' (Ora, Gab, Lab, Larri, Laph / Ibarre) —Ibarrolako Salaberrik ere bai—; cf. **auari** (Zib); Haritxelharrek Iholdi alderdian kokatzen zuen **ahuaria** & **ahualdu** (1963: 61), baina guk Arberoko Armendaritzen **afari** entzun dugu

gakho 'hil ondoren urdea tilintatzeko' (Gar, Arbo / Dom / Jut, Larz) & **gako** (Arrü),[97] **gaphuñ** 'kapoia' (Bardo / Bith, Arrü / Dom, Pag) & **gapuñ** (Lan) & **gaphuin** (Arbo / Larz) —hegoaldera eta mendebalera **k-** dago Bastida, Baigorri, Irisarri, Arnegi eta Garaziko Uharten eta baita Amiküzeko Arrüetan ere—, **goha** 'bero tzarra, haizerik gabea' (Bardo / Meh / Arrü, Arbo / Lan, Jut, Larz) & **goa** (Gar) & **gorha** (Arm); Zuberoan **gohan** & **gohain** aldaerak ditugu

haxot 'egur sorta' —cf. Olhaibin bildu dugun **belhar haxot**— (Arbo / Dom / Lan, Jut, Zib, Donaix) & **axot** (Gar),[98] **heen** —pean **heben** duela dirudiena— (Bith, Uha, Mar, Ilh, Gam / Dom); ikus Oztibarren ere **heen** (Arh, Izu, Jut, Larz, Bun, Ibarre, Ibarro, Hoz; in Videgain 1989)

ihitz 'ihintza' (Behau, Arrü / Lan, Jut, Larz, Ibarro) —Zuberoan *ĩhĩtz* ahoskatzen dutena; Ipar Euskal Herrian hedadura handia du: Lapurdiko Aturrialdean eta ekialdeko Garazin ere **ihitz**, mendebaleko Garazin **iitz**, baina Lapurdiko eran Baigorri eta Bidarrain **ihintz**; alta, Baxenabarreko mendebalean eta Amiküzeko Garrüzen **izarrihitz** ageri da—

k(h)adiña 'behia lotzeko katea' (Gar, Arbo / Jut, Larz) —baita Garazi ekialdeko

96. **EAEL**-k Aturrialdeko Urketan, Amiküzeko Amendüzen eta Domintxainen dakar.
97. Zuberoan **khako** edo **kakho** aldaera nagusitzen da, baina Pagolan **xirrintola** bildu da. Larzabalen **gako** & **grako**, baina Baxenabarre erdialdean legez, Landibarren **krako**. Garazin **gantxo** nagusi da, baina bada **grantxo** & **grantzo** ere, nahiz Uharten **kakotx** eta **kroka** bildu diren. Ezker, Alduden **gantzo**, Baigorrin **krakotz** eta Bidarrain **mako** bildu dira.
98. **haxe** + **-ot** txikigarria = **haxot** ibiltzen da Baxenabarre iparreko Amiküze-Oztibarretan; bestalde, Garrüzen **axot** dago eta Domintxainen bezala, Arrüetan **fagot**. Zuberoan **haxe** & **fagot** dira nagusi eta Oztibarreko Larzabalen **xixtapur** bildu da. Garazi ekialdean **haxe** dago eta hegoaldean, Baigorriko eskualdean bezala, **zama**. Baxenabarre mendebalean **haxe** berragertzen da: Bastida, Izturitze eta Irisarrin.

Behorlegi eta Ezterenzubin ere; cf. **kadena** (Arrü), **khadeña** (Dom) eta **khatiña** (Pag)—, **kafe** 'habia' (Bardo / Arrü, Gar, Arbo, Zoho / Dom / Jut, Larz) —Gamarte, Behorlegi edo Arnegin ageri da; **EHHA**-ko datuek partitiboan **kafeik** dakarte Jutsin; Landibarren **kafia** da erantzuna, izan ere, Baxenabarren **kafi(a)** eta **kafir(a)** ditugu bestela; cf. **kafira** (Arm, Meh); Zuberoan **habia** erraten da, Pagola barne, baina baita Amiküzeko Behaskanen ere—, **klosko** 'ur putzua' (Arm / Arrü, Zoha, Arbo / Dom / Larz); cf. **losko** (Sarkp)[99]

mitre 'berina, kristala' (Arrü, Gar / Lan, Larz), **muxerun** 'udaberriko ziza, **Tricholoma georgii**' (Gar) & **muxerœn** (Arbo) & **moxolon** (Larz); Gamarten ere **moxolon**, Behorlegin **muxerona**, Zuberoan **buxeu**

oseba (Ora, Bith, Gab, Arbe, Laph / Dom); Ibarrolako Salaberrik ere **oseba** dakar, baina Zuberoan **osaba** dago (**EAEL**)

txitatei 'txitak sartzeko kaxa berezia, kaiola' (Arbo / Larz) —Garaziko Behorlegi-Ezterenzubin legez; Altzürükü-Urdiñarben ere **(t)xitxategi;** Arrüetan **kaiola;** Garrüzen **kaloi** dakar **EHHA**-k, Zuberoan bezala, baina galdera ikurra darama; guk Zohotan **kaloia** bildu dugu—

urdandei 'zerritegia' (Bardo / Arrü, Lab, Gar, Arbo, Zoho / Dom / Lan, Jut, Larz)

xaz 'iragan urtean' (Arm / Ora, Behau, Bith, Lab / Olh / Lan, Jut, Larz) —baita Aturrialdeko Mugerre, Urketa eta Bardozen ere—, **xingar** 'zerriaren urdai azpikoa' (Arm, Meh / Ora) & **zingar** (Sarkp), **xilkhoi** 'zila, zilborra' (Arbo / Dom, Pag / Jut, Larz) & **xilkoi** (Arrü, Gar)[100]

zaaldü 'atea ireki' (Arrü, Arbo) & **zaaldu** (Bardo) & **zaldü** (Gar / Dom) & **zabaldu** (Jut) & **zaaldu** (Lan, Larz); Pagolan **zabaltü**; Baxenabarre mendebalean nagusi da **ideki** eta Lapurdin **ireki**; **sabaldu** & **zabaldu** Bizkaian, Gipuzkoako mendebalean eta Nafarroa Garaiko mendebalean berragertzen zaizkigu

5.2.5. Baxenabarre ekialdeko eta Zuberoako hitzak Amiküzen

ãhãrdi 'zerrama, zerri emea' (Ora, Zoho) & **ahardi** (Barta, Mar / Jut, Larz), **ahari** 'zikiroa, irendua dena' (Bardo / Arrü, Gar, Arbo / Dom / Lan, Jut, Larz) & **ahai** (Pag) —Baxenabarre mendebalean **zikiro** dena, Arnegi, Aldude, Baigorri, Bidarrai, Armendaritze barne, nahiz **aari** eskuinaldetik Hazparneraino hedatzen den—, **axurdun** 'oraindik umea kendu ez dioten ardia'

99. Behorlegin ***kloska** onetsirik dakar **EHHA**-k.
100. Zuberoan **pikhoste** dago, baina galdera ikurra darama **pikhoste**-k Pagolan. Landibarre, Behorlegi, Ezterenzubi, Arnegi, Baigorri eta Alduden **xilk(h)o** dute, baina Gamarte, Luzaide eta Bidarrain **zilk(h)o**.

'aihotza, adar mozteko guraizeak' (Arbo) & **kutela** (Dom, Pag / Jut) & **kotela** (Arrü)

labri 'artzain txakurra' (Arbo) & **labrika** (Larz) & **llabrika** (Dom) —Aturrialdeko Urketan ere **labri**; Zuberoan **llabrit,** Pagola barne—, **larrutu** 'amildegian behera joan' (Gar / Jut, Larz) & **larrütü** (Pag) —cf. **lerratu** (Bardo)—, **lekaxina** 'ziza horia, **Cantharelus cibarius**' (Gar, Arbo / Dom, Pag / Lan, Jut, Larz) —Zuberoan eta Jutsin **lekaxin**—, **lunka** 'solomoa' (Bardo / Arrü, Gar, Arbo / Dom / Jut, Larz) & **lünka** (Ilh / Pag) & **lonka** (Larz); Zuberoan **lünk(a)**[102]

mahunga 'ibaian arrantzu egiteko sarea' (Arbo / Lan, Larz) & **maunga** (Gar) —Zuberoan **arramahanka,** Pagolan **armahanka—, mant(h)ar** 'behiak lepotik dilindan duen larru plegua' (Arbo / Pag / Jut); Zuberoan **lephomanthar,** Domintxaine eta Pagola barne, baina Amiküzeko Arrüetan **lepomanta;** cf. **lepamantar** (Lan) & **papomanthar** (Larz)

ordoki 'leku zelaia, ordeka' (Arm / Uha, Mar, Gar / Lan, Jut, Larz); Arrüetan **plano** eta Arbotin **planada**; Baxenabarreko ipar-mendebaleraino eta Lapurdiko Makearaino heltzen da **ordoki** eta bestaldetik Garazi edo Zaraitzuraino; aldiz, ondoko herrian, Aezkoako Abaurregainean etxe izena da **Ordoki**, hitz arrunta **zelai** edo **eluts** da, Aezkoan ez da **ordoki** hitza baliatzen

pandüla 'hormako ordularia' (Bardo / Arrü, Arbo / Dom / Pag) & **pandola** (Jut) & **pendol** (Lan) & **pandela** (Gar) —Urketan **pandọla** eta Zuberoan **pandüla**—, **pera** (Arbe / Jut); cf. **peratze** (Arb / Dom) & **peatzia** (Urd),[103] **pilika at** 'pixka bat' (Behau); Ibarrolako Salaberrik badakar eta **OEH**-k Arberoan kokatzen du ere

tirant 'etxearen murru batetik besteraino doan zurezko pieza horizontala' (Arm / Arrü / Jut) & **tiant** (Larz) —Zuberoan **thiant**—, **trantxa** 'urdai azpikoa' (Arbo / Dom, Pag / Larz)

üzkorno 'hegaztien lepahezurraren bukaera, ipurdi aldean' (Arbo / Dom, Pag) & **uzkorno** (Larz) & **uzkurno** (Jut)

zeñu 'ezkila' (Amo, Bith) & **zeinhu** (Arm) —Oztibarren ere **zeinu** baliatzen da, 'kanpaikada' adiera ere baduena (Ibarro, Donaix); Ibarrolako Salaberrik **zeinhu**—, **zinkha** 'irrintzia' (Arbo / Lan, Jut, Ibarro, Donaix),[104] **zizkatia** 'sitsak janik' (Arrü / Dom) & **xixkatia**

---

102. Lapurdiko Aturrialdean eta Baxenabarreko ipar-mendebalean bezala. Aldiz, Baxenabarre erdigunean hedadura du **urineko**-k, Garaziko Behorlegi barne eta **filet(a)** dago Garazin; Baigorrialdean, berriz, **soinki** ibiltzen da, baina Lapurdi ekialdeari eta Baztani lotzen zaio Bidarrai: **soloma** darabil.
103. Arberatzen dioskute: **peraendako guk "pera" eRain dizii, "udaria", gañeat "udaria" uzu**. Eta Jutsin: **guk "pera" erten dugu, "madaria" erten dute Heletan eta Garazin "udaria"** (Videgain 1989: 1229).
104. Landibarre & Larzabaleko **EHHA**-ko datuen arabera jendeek egiten dutena da; jendearena dela dioskute Donaixtin ere, laburra eta indartsua, ez dela zaldiarena, baina **EHHA**-n 'zaldiaren irrintzia' da ere (Jut).

(Dom) & **zizku** 'zizka, sitsa, bipia' (Jut) —Pagola barne, Zuberoan **zizka** da nagusi—, **zoleta** 'hormaren gainean dagoen zur luze horizontala, teilatuaren zurezko egiturari eusteko' (Arrü / Dom / Jut, Larz); mendebalera **zapeta** & **zapetadura** hitzak ageri dira

5.2.6. Baxenabarre ekialdeko eta Zuberoako aldaerak Amiküzen

argia gabe 'egunsentia baino lehen' / **be** behi edo idia aitzinera joanarazteko errana, **bena** 'baina', **bekhan** 'bakan', **ber** —**ber gauza** erakoetan—, **beza(i)nbeste** konparazio partikula —baina Amiküzen nahiz Oztibarren bada **bezanbat** ere—, **bihikatü** 'aletu, garandu', **bitre** 'berina, kristala', **busta** "busti"-ren aditzoina / **erratze** 'erretzea', **eskapi** 'ihes egin' & **espaki**, **eskusega** 'eskuzerra, zerrotea', **exker** 'ezkerra', **ezari** 'ezarri' / **früta** —Lapurdin eta Baxenabarreko mendebalean **fruitu**— / **gordatze** 'gordetzea' / **hail** agintezkoa 'hoa' adieran —cf. Zuberoako **abilua** 'hoa'—, **(h)atsarre** 'hasiera' / **iautiri** 'ihauteria', **ihaurgei** 'abereen azpigarria ukuiluan', **ihizor** 'ehizako zakurra', **irrintziri** 'zaldiaren irrintzia', **it(h)ain** 'akaina, lakasta' / **ka(l)antxerri** 'sabelaldiko txerrikume ttipiena', **küküla** 'gandorra, gangarra', **kuntre** 'kontra' & **kontre** / **laa!** 'zaldiak-eta geldiarazteko egin oihua', **lauhazka** 'zaldia galopean', **luhuntz** 'aihena, lurruntza, **Convulvulus arvensis** landarea' / **migantxa** 'urruxa gaztea, biga baino gazteagoa', **mosko** 'hegaztien mokoa' / **nahar** 'laharra, sasia' / **ohit** 'oroit' / **phalet** 'abere adarzabala', **pheldo** —Zuberoan **meldo** & **meldũ**— / **sabre** 'eskuzerra, zerrotea', **sagartze** 'sagarrondoa', **segazahi** 'zerrautsa, zerrazahia', **sendotü** 'sendatu' / **trenkasega** 'arpana, trontza' / ülü 'eulia', **urzo** 'usoa' / **zerrallü** 'egurrez egin itxitura edo hesia', **zurt(h)ai** 'zureria, etxegintzan egurrezko pieza guztien multzoa', **züzülü** 'zizeilua'.

5.2.7. Amiküzeko hitzak Zuberoan bezalakoak

Badira franko Amiküzen, ekialdeko herrietan bereziki. Hona sorta bat:

adret 'antzetsua, iaioa', **agrada izan** 'gogoko izan', **aiduru** 'zain', **aizebeltza** 'mendebala, zeharraizea', **amiñí bat** 'pixka bat', **arraitzuli** 'bigarren aldiz joan', **arrunt** 'berehala', **askazi** 'ahaidea' & **azkazi** / **deskokatü** 'oiloa deskokatu, freskatu, busti', **drole** 'bitxia' / **eho** 'hiltzea' —ez da orokorra Amiküzen—, **elge** 'alor landua', **eli bat** 'sorta bat, batzuk, pare bat' —ez da orokorra Amiküzen—, **ephantxü** 'oztopoa, eragozpena', **erdiro** 'arraildura', **errai** 'zerriaren birika' / **fundamen** 'zimendua' / **gozaita** 'eguzaita, aitapontekoa' & **goxaita** / **haboro** 'gehiago', **hardit** 'ausarta', **heexa** 'hatza, aztarna' / **idoki** 'kendu', **ilhantxa** 'mirua', **iüükatü** 'igurikatu' / **janbun** 'urdai azpikoa' / **landabroka** 'landare biziz egin hesia' / **mahumet** 'haize zirimola, zurrunbiloa', **mainkhatu** 'min hartu' (Zoho) / **ñago** 'arbia' / **oski** 'oinetakoak' / **pharte hun!** agurra, **podra** 'behoka' / **sargia** & **etxesargia** 'etxe aitzineko ate ondoko edo atariko kanpoko alderdia' / **sendika** & **senditü** 'zantzuaren gibeletik zakurra usmaka joatea', **solamente** 'bakarrik, soilik' / **ter-ter-ter** 'emeki-emeki', **thini** 'gailurra, muturra' / **ülhüngia** 'tximista', **ünk(h)ü** 'arbola erroa, ipurdia', **xantxa** 'aberea jaistean esnea biltzeko ontzia' & **xantxo**, **xixklo** 'abere potrobakarra' & **xixtro**

5.2.8. Amiküzeko aldaerak Zuberoan bezalakoak

ahatze 'ahantzi', **ai[*ź*]et** 'erraza', **aitañí** 'aitona', **aizo** 'auzoa' —**auzo** ere entzuten da Amiküzen—, **alhagi(a)** 'bazkalekua', **alajinkoiña** & **alajinkua**, **amañí** 'amona', **antzera** 'antzara', **arauz** 'dirudienez, segurki', **arraga** 'marrubia', **astaña, astoüme** 'astokumea', **auher** —cf. **aufer**

(Uha)—, **a(i)xkora** 'aizkora' / **bardin** 'berdin', **barrükü** 'ikuilua, barrukia', **bart(h)adera** 'atea lotzeko zatia', **berrat** 'zerri arra', **butiga** 'norberaren bizialdi, negozio edo gora-beherak', **deskargi** 'deskargatu' (Arbo), **Domia Sendore** 'Omia Saindu, Domu Santu eguna' / **eitarsün** 'eritasuna', **erri in** 'irri egin' (Zoho) —ez da orokorra Amiküzen eta bada **irri in** ere Zohotan—, **espintxeta** 'suko kurrika, suhatza', **ezkun-** 'ezkon-du' / **galdo** 'eskaera', **gañan** (1) 'gainera' —cf. Zuberoako **gañeran**—, **gañean** (2) 'bestela', **guntz** 'atearen gontza, txoria, bisagra' / **habia** 'kabia', **hautse** 'hautsi', **herausi** & **ehausi** 'zerri emea ar eske egotea' / **ian** 'iragan' —cf. **iganak** 'iraganak' (Ora)—, *îhîzen* 'ehizean', *îhîzi* 'ehiza', *îhîzlari* 'ehiztaria' (Zoho, Laph) —cf. *îhîztari* (Lab)—, **ikatxero** 'ikazkina', **ilhar biibil** 'ilarra', **intzaurtze** 'intxaurrondoa' / **jelki** 'irten, atera', **jeste** 'dastatu' & **jestatü**, **juiten** 'joa(i)ten' / **k(h)aidera** 'aulkia, kadira', **kaloia** 'kaiola', **khanbera** 'etxeko gela' / **ma(i)xtürü** 'zurgina' —Zuberoan **maiastürü**—, **mezperak** 'igande arratsaldeko elizkizunak', **muztü** 'moztu' / **nahiant** 'nahi duena', **nuiz** 'noiz', **nula** 'nola', **nur** 'nor' / **ordari** 'ordaina', **ozader** 'ortzadarra' / **phe(r)edikü** 'predikua, sermoia' & **phed(e)ikü**, **praue** 'pobrea' —Gamuen **proiak**, Bithiriñan **pobre**—, *püpliatze* 'makala, txipua, zurtzuria, busuntsa, **Populus nigra**' / **txitxa** 'txita, txitoa' / **untsalaik** 'ongi izatera, ondo bidean' / **xãhãtü** 'garbitu', **xainkhueri(a)** 'ardiaren zango muturreko min edo eritasuna', **xainkheria** 'behiaren nafarreria, maingueria, delako 'fièvre aphteuse / fiebre aftosa', **xainkhüz** 'errenka' (Laph) —ez da orokorra Amiküzen; cf. Zuberoako **txainkü**—, **xakola** 'sakela' & **sakola, xerbitxü** 'zerbitzua', **xilintxau** 'zintzilik' & **zilintzau, xüti** 'zutik' —cf. **zuti** Tartasek eta **züti** Belapeirek; bada **xütik** ere Amiküzen— / **zübü** 'zubia', **zuin** 'zein'

Beste adibide batzuetan denbora iragan izanak aldaketak eragin ahal ukan dituela dirudi: errate batera, **EAEL**-k Domintxainen eta Etxarrin **zelü** dakar, baina Amendüzen **zeria**; Zohotan **zerü** bildu dugu guk ere. Iraganean **zelü** eta **zerü,** bi aldaerak ditugu Donapaleuko XIX. mendeko katiximan.

Ipar Euskal Herriko eta Baxenabarre gehieneko berrikuntza batzuekiko immune gelditu da Amiküze gehiena: Zuberoan bezala eta Arberoan ez legez, ekialdeko ezaugarri zaharretarik ere ibiltzen da Amiküzen. Baxenabarren eta Bardozen **hogoi** ibiltzen da, baina Zuberoan eta Amiküzen **ho(g)ei** aldaerak iraun du.

Zuberoan nagusi diren baina hiztun amiküztarren ahotik ere entzuten diren aldaerak aurkeztu ditugu, baina bada alderantzizkoa ere: Baxenabarren edo Amiküzen nagusi diren ezaugarri batzuk, Zuberoako ipar-mendebaleko herrietan ageri dira, Zuberoa gehienean ibiltzen ez badira ere: errate batera, Zuberoan ez bezalakoak eta Baxenabarre gehienekoak bezalakoak dira Oihergin bildu ditugun adibide lexikook: **eakoitza** 'larunbata', **primadea.** Baxenabarreko aldaera lexiko orokorrak dira Oihergin bildu ditugun **atsalde, be(de)atzi, ederrago, elgar, ga[ź]na.** Alta, Oihergi zubereraren muga herria da, Zuberoan orokorrak diren beste adibide hauek guztiak ere bertan bildu ditugu: **bedatsia** eta **neskenegüna** hitzak eta **alkhar, ei[ʒ]erra** & **ei[ʒ]erki, ga[z]na** aldaerak.

5.2.9. Amiküzeko hitzak ipar-Zuberoan bezalakoak

filet 'azpizuna' & **filemiñõ** / **ingi[ź]atü** 'kalkatu, antzarak janez bete' —cf. **galkhatu** (Jut, Larz)— / **kotera** / **xi[ź]a** 'gerezia'

5.2.10. Amiküzeko aldaerak ipar-Zuberoan bezalakoak

bideka 'herri bideetako lanak, auzolana' / **khooste** 'gorostia' / **masus(a)** 'masusta' & **maxuxa** / **xixkor** 'txantxigorra, gantxigorra'

6. Donapaleu sorburua: batasunaren eta aniztasunaren artean

6.1. Egun industria aldetik Donapaleu hiriak presentzia, eragina eta indarra badu ere, Donapaleun ʰeskuara arras ahul dagoen garaia da oraingoa, izan ere bilakabide ekono-tekniko berritzaileek hein handian ahuldu dituzte tradizioko euskal laborarien giroa eta munduikusmoldea. Alta, euskaraz ziharduen iraganeko Amiküze hartan Donapaleuko berezko dinamikak eta ostiraleko merkatuak berebiziko garrantzia ukan dute eskualdeko jendeen hartu-emanetan, errutinizazioan eta gizarte-sareak finkatzeko eran, horregatik, Amiküze eskualdeko hizkuntza-berrikuntza esklusiboak hein batez Donapaleurekin edo hondarreko mendeetan bertan garatu den dinamikarekin bederen lotzeko arrazoiak badirela uste dugu.

Eskualdeko buru egiten duen Donapaleu orain den baino euskaldunago izan da historikoki: laborari eta abeltzain bizimodua euskaraz eraman duen gizarte-egitura baten barreneko buru ikusi behar dugu iraganean Donapaleu hiria. Ekonomian eta zerbitzuetan halako buruzagitza eduki izanak nola edo halako prestigioa eman ohi dio. Donapaleuren erakarmen indarrak, bertako euskaldunekin usu jardun beharrak eta hiri orori darion balizko prestigioak nolarebaiteko hizkuntza-batasun bat eragin ahal izan du inguruan, eskualdeko hiztunek inoiz hiriko mintzamoldearen ezaugarri edo era batzuk berenganatu dituzkete, haiek bezala mintzatzeko hautu intuitiboa egin dukete, hiri horretara usu jotzera behartu baitira.

6.2. Hemendik kanpo ere, hirian eta hiriaren ingurumarian gauzatzen den ekonomia eta kultura-nagusitasunak halako erakarpen bat ukan ohi du inguruko herrietako jendeentzat, halako hizkuntza-batasun edo berdintasun moduko bat eragiten duena, hiriko ezaugarri batzuk ingurumarian hedatzen direlako, hartako, hiriaren ondoko herrietan ere agertzea itxaron beharko genuke. Donapaleura zerbitzu zenbaiten bila jorik, bertan elkartu ohi diren amiküztarren bilgune izan da hiri hau, hartu-emana, gizarte-sareak, elkartasuna, errutinizazioa eta balizko hizkuntza-batasuna eragin dituzkeena.

Baina prestigioaren arrazoiaz landa, hemendik kanpoko dialektologiako lan frankok erakutsi du eragin berritzaile eta aldatzailea izan lezakeen bizigunea ere badela hiria edo eskualdeburua:

Alexander (2007), Bortoni-Ricardo (1985), Bynon (1981 [1977]), Cortelazzo (1969), Chambon (2004), Montes Giraldo (1982), Nordberg (1994), Radtke (1998), Ronjat (1980 [1941]), Veny (1986), Villena (1994), Wiemer (2004)

Donapaleu elgarretaratze gunea izan da eta bertako merkatu eta ostatu guneetan herri frankotako amiküztarrak eta auzo eskualdeetakoak elkarren ondoan gertatu dira. Herritik hirira ezkontzera edo bizitzera doazenek ere beren formak daramatzate hara eta barne aldakortasuna hazten dute. Balirudike arrazoi honek hiriak eta haren prestigioak

ingurumarian eragin hizkuntza-batasunaren aurkako ondorioa ere ukan lezakeela aldi berean: hiri-dinamika horren elgarretaratze giro berezian hizkuntza-ezaugarrien halako elkartze edo nahastea sortzen da eta horren isla hizkuntzako ezaugarri berri batzuetan ageri da, mixture kutsuko nahas-mahas bidezko hiriko hizkuntza-ezaugarri berrietan. Hiriko ezaugarri berri horiek ez dira berehalakoan nagusituko, baina herri ttikietarik Donapaleura usu joaten den jende hori bera da berrikuntza horien eramaile herrira itzultzen denean.

Donapaleuko nahasketa giro berezian sortuak diratekeen ezaugarri berri horiek hirira usu jotzen duen herritarrak haren herritarren aitzinean eta beharbada baita familiakoen aitzinean erabiltzen hastearekin, ezaugarriak hedatzen has daitezke eta nolaz xuxen ez dakigula, hedatuz doazen ezaugarriak inoiz errotzen dira, hartako erran ohi da hizkuntza-ezaugarri baten hedaduraren arrazoiek eta ondorioek elkar elikatzen dutela. Konparazione, teorian ez da ulergarri sarrikotarrek, oragartarrek, lohitzündarrek edo bithirindarrek sortu berrikuntza bat hedatzea eta Amiküze eskualdean gaindi zabaltzea, hiriko dinamika berritzailearen eskemak uste dugu hobeki funtziona lezakeela argigarri, baina ezaugarri berri bakoitzaren kasua xuxen aztertu beharko genuke ondorio generikoak atera baino lehen eta ez da hori egokiera aiseta.

6.3. Hiriak aniztasuna ukan ohi du mintzoaren aldetik, ondoko eskualdeetako jendeek bizitzera hirira jotzen dute eta geografia-alderdi bat baino gehiagotako ezaugarriak entzun daitezke hirian aldi berean eta nahaska; honela, hiriko hizkuntza-aniztasunak eraginik berrikuntzak ager daitezke hiriko mintzoan, dela nahasketak eraginik edo dela prestigioak hartaraturik, izan ere, usu ikusi dugu hiria ingurumariko herrietarik hizkuntzaren bidez bereizi dela, halako nahikari burgesa du hiritarrak laborariak ez bezala mintzatzeko (Dalen 1993, 1999).

Hirian hizkuntza-aniztasuna egon daitekeela ez da afera berria; Donapaleun bi hiztunekin egonik gaude berri: bien aita-amak Donapaleuz kanpo sortuak ziren; ü egiten ez duen eta -tuko → -tiko berrikuntza ere egiten ez duen hiztunak ama oragartarra zuen, aita Labetzekoa eta senarra Donapaleukoa; iduri luke amaren mintzoari loturik egon dela. Beste hiztunak ü argi ahoskatzen du eta -tiko berrikuntza ere baliatzen du; ama Garaziko Aintzilekoa zuen, baina aita Behaskanekoa. Hirietan gauza arrunta da honelako aniztasuna agertzea, nahiz teorikoki bederen hiriko mintzoa ondoko herrietara hedatzeak ingurumarian halako levelling edo mintzo-bateratzea eragiteko aukera handia duela ere onetsi beste biderik ez dugun.

6.4. Baina hizkuntza-aniztasunaren gaiaz dihardugularik ez ditzagun jauntxoak ahantz, jauregien, lurren eta are etxe anitzen jabe ziren jende boteretsu haiek. Jauntxoen eskumenean zeuden lurren ustiatze sistemak etxetiergoa eragin du hondarreko mendeetan bederen. Etxetiergo honek garrantzia eduki ahal ukan du Amiküzeko hizkuntza-ezaugarrietan: jendea haren aita-amena ez den etxe batean edo aita-amena ez den herri batean sortu ahal izan da usu, ezkontzean beste etxe batera jo, eta familiatu ondotik ere beste herri bateko beste etxe batera jo dukete hainbat amiküztarrek azken aspaldian, non nola, noiz nola; usu entzun dugu lelo hau lekukoengandik.

Barne-higidura ohitura horiek ere litekeena da eskualdeko mintzamoldean halako batasun edo kohesio era zenbait garatu izana, elkarrekin erdi nahasian ibili baitira eskualdeko

herrietako amiküztarrak, lan egin beharrak eta maitasunak —edo ezkontzek bederen— elkarren ondoko herrietako jendeak hartu-emanean jarrerazi dituzte luzaz; ez ote du honek halako levelling edo berdinkaratzea eragin eskualdeko ʰeskuaran?

Kontrakoa gertatu izana litzateke harrigarri, elkartasunak hizkuntza-zatiketa eragitea. Elkartasun horrek aniztasuna eragin dezakeela ez dugu ukatzen, eskualde bateko baino gehiagotako jendea eta haien mintzoak elkartzean, baina prozesu honek belaunaldi pare baten buruan halako hizkuntza-batasun maila bat eragin dezakeela ere ez dugu ukatzen ahal. Eta gure ustean bada halako mintzo nuklear batu iduri bat edo Amiküzen, nahiz honekin ez dugun adierazi nahi Amiküze hizkuntzaz eskualde homogenoa denik, aparientziarik ere!

7. Berrikuntzen irispidea: Amiküzeko erdigunea vs. saihetsak

7.1. Donapaleu ez da hirigune hazi bakarra eskualdean, beste grabitazio-indar linguistiko batzuen menpe ere egon dira historikoki Amiküzeko herriak, batez ere eskualdeko saihetsetan kokaturik daudenak. Donapaleuren erradiotik urrunxeago kokatzen diren herrietan gertatzen da ahulen Amiküze eskualdeko berrikuntza endemikoen eragina; eman dezagun, -tuko & -tüko → -tiko berrikuntza ahul ageri da edo ez da ageri mendebalean Oragarren eta honen auzo Bartan, hegoaldean Behauzeko mendebaleko hiztun baten kasuan eta hego-ekialdean Uhartehirin. Egiazki Uhartehiri Donapaleuren auzo herria da, urrun dela errateak ez luke kanorerik, baina herri honen kasuan pentsa liteke ere, beharbada Garazi-Oztibarre-Landibarre ardatzeko hizkuntza-ohiturek Donapaleutik hegorat etor zitekeen hizkuntza-eragin berria hein batez neutralizatu ahal ukan dutela.

Ibarraren saihetsetan diren herrietan ezagun du Amiküzez kanpoko hizkuntza-eragina: Uhartehirin Oztibarre-Landibarre-Garazikoa, eta Ostankoan ere segurki, honek ondoan Landibarre duela ahantzi gabe. Eta bestaldean, Amiküzeko mendebalean ezagun du Hazparne alderdiko mintzoaren eragina, ibarraren ekialdeko herrietan Xiberoko euskara bereziarena ageri den bezalaxe.

7.2. Donapaleura hurbil —batez ere Amiküzeko iparrean—, kaskoin jendeek amiküztarren gizartean eta mintzoan eragin ahal ukan dutela ere aintzat hartzekoa da; u eta ü bokalen sistema berria eskualdeko iparrean eta erdigunean kokatu da, hizkuntzan eragin du eta ondorioa bederen geografikoa da: kaskoinekiko hartu-eman zuzenagoan bizi izan diren amiküztarrek berriztatu dute u baizik ez duen bokal sistematik → u eta ü dituenera, baina dinamika geografikoan gertatu da hori, auzokotasunaren arabera: amiküztar ipartarrek eta erdiguneko frankok bai eta ondoan Baxenabarre zabala ukan duten hegotarrek, berriz, ez.

Ez dugu ikusi ezaugarri honen geografia-hedadura berean doan beste hizkuntza-tasunik; errate batera, zuketa alokutiboaren geografia-hedadurak ez du zerikusirik u - ü bokal sistemak duenarekin: Haasek dioena dioela (1994: 176), guk segurik ez dugu ezagutzen ü berriak hartu duen hedadura bera duen beste ezaugarri berririk Amiküzen.

Hizkuntza-gertakari batzuk bederen aspaldikoak dira eta ez ditugu nahi bezain ederki eta sakon ezagutzen, izan ere, errate batera, egun Oragarreko Barta auzoan badira kaskoinak

eta ondoko Bardozen ere bai eta halaz ere, Barta kartierreko egungo euskaran bederen ez da kasik ü-rik sumatzen; ez dakigu xuxen berrikuntzak noiz gertatu diren, haien ondorioa ezagutzen dugu, haboro ez, baina badakigu, ordea, Oragarren auzo berria dela Barta eta hain segur ez dela ü galerarik gertatu bertako euskaran.

7.3. Baina eskualdera heldu den eraginaz landa, Amiküzeko ^{h}eskuararen eraginaz ere mintzatu behar da: Donapaleutik eskuin indarrez eragiten du Xibero alderat, Domintxaine, Berroeta, Etxarri, Ithorrotze, Olhaibi, Arüe, Sarrikotapia, Oihergi edo Pagola herrietarat eta hegoaldean badakigu Landibarreko Behaune auzoan ere badirela tasun batzuk gainerateko landibartarrenak edo arberoarrenak ez bezalakoak direnak, hain zuzen ere amiküztarrek baliatzen dituztenak bezalakoak. Ibarraz kanpoko Arhantsusin ere ageri da Amiküzeko euskararen isla: egiazki, hiztun oztibartarrak berak dira honetaz ohartzen lehenak. Amiküztarrekiko hartu-emanak eraginik, eskualde horietako euskaldun zuberotar, oztibartar edo landibartarrek berenak ez ziren hizkuntza ezaugarriak entzun, eskuratu, berenganatu, eraman eta errotu dituzte, amiküztarrei hartuak dituzte; gizarte aldetik historikoki Donapaleu hiri ahula izan balitz, hizkuntza-eragin hori ez zatekeen inolaz ere gertatuko.

Donapaleuren eraginaz dihardugunean ikusi behar da ea Amiküzeko ezaugarriak Uhartehiriz edo Ostankoaz harat Oztibarre alderat ere hedatzen diren edo Uhartehirira eta Ostankoara baizik ez diren heldu, izan ere, ez da gauza bera Uhartehiri edo Ostankoa Amiküze gehienarekiko bereizten duten ezaugarriak zaharrak ala berriak izatea, honelako datuek hainbat argibide emanen ligukete Donapaleuren hizkuntza-eraginaren balizko aldi edo sasoinez.

Gure ikuspegian, hondarreko garai honetan bederen Sarrikotapea eta Oihergi dira zubereratzat jo dezakegun mintzoa egiten duten lehen bi herriak eskualdean, baina ez da zalantzarik Olhaibi batean edo Etxarrin eta bereziki Arüen zuberararen eite hartuz doala euskara, indar handiz gainera. Domintxaine eta Berroetaraino uste dugu heltzen dela Amiküzeko euskararen eragin nabarmenena, bertatik eskuinera emeki-emeki Zuberoako eretarat jotzen du euskarak, baina ikusi dugun bezala, badira Baxenabarreko ekialdean gaindi datozen ezaugarriak, Amiküzen barna eskuinerat jin diren berrikuntzak, ez Sarrikotapera bakarrik, are Ainharberaino ere heltzen direnak, Etxarri, Olhaibi, Lohitzüne, Oihergi edo Pagolara bezala; iraganeko Donapaleuko gizarte dinamika indartsua salatzen dute Amiküzen gaindi Zuberoarat sartu diren berrikuntza hauek.

7.4. Eta alderantzizkoan, Xiberotik heldu den hizkuntza-indarra ere aipagarri da. Ez gara ausartzen euskarari doakionez Mauleri halako eragina aitortzera, izan ere, mintzoz euskaldun ez ziren biarnesak buru izan baitira luzaz hiri honetan, baina honek ez du erran nahi Zuberoak Amiküzeri eskuinetik hizkuntza erakarpenik eragin ez dionik; ezin liteke bestela eta honela izan da, hizkuntzak ezagun du. Eskuinera lerratuz eguzkialdera goazen ber, Amiküze ekialdeko herrietan ohiz Zuberoakotzat jotzen ditugun hizkuntza ezaugarrien agerpena areagotuz doa, Zuberoako muga-mugan diren herrietan: Arbotin, Zohotan, Arberatzen, Laphizketan...

- Alderdi fonikoan i - ü → ü - ü asimilazio mailarik gaitzena Amiküzeko ekialdean

ageri da; konparazione, Arbotikoak dira **lübürü, üdüri, ülhüntze, üngürü**. Eta aditzaren morfologian ezaugarri honek duen islari doakionez, Arbotin entzun dugun aldaera batek nabarmen Zuberoari so jartzen gaitu: **zünien** 'zenuen', **zünia̧n** eta **zünin**, hirurak eman ditu herri honetako gure bi lekukoetarik batek

- Galdetzaileetan kutsu zuberotarreko **nur** (Zoho, Laph) & **nurbera** (Laph), **nula** (Zoho) entzun ditugu Amiküzeko ekialdean; denborazko galdetzailean kutsu zuberotarreko aldaera ez da hain ekialdean gertatzen: **nuiz** (Sar) & **nuiznahi** (Bith, Ame); ez hain ekialdean ere, **zuin** dugu Amiküze erdialdean (Lab, Gab) nahiz ekialdean (Arbo)

- Zuketan **joan** aditzaren trinkoetan, Amiküzeko gainerateko herrietan ez bezala, Zuberoan bezala **o** erroa entzun dugu Arbotin eta ez **i**

- Arbotin entzun dugu **deskargi** 'deskargatu', partizipioak eratzeko Zuberoako sistema berrian legez; Amiküzen ez dugu aldaera berri hau beste inon entzun

- Zohotan **jeste diat**, **jestatü diat** & **jesta zak** bildu ditugu, baina Trebitsch-ek, ordea, **jastatu** dakar Amorotzen 1913-ko etnotestu batean

- Arbotin ez bezala —**erranez** eta **phaatüz** partizipio bururatuak entzun ditugu moduzko perpausean—, Zohotan **libertitzez** aditz-izena entzun dugu eta ez "libertitüz"

- Alderdi lexikoa ere aipa dezakegu: **eho** 'hil' hitza Laphizketan agertu zaigu, **eli bat** Zohotan, **khunde** elea Arbotin —**neskato khundia**—

- Amiküzen **ahatze** 'ahantzi' agertu zaigu (Bith, Ilh, Zoho); berebat, Amiküzen nagusi den **artio** postposizioa **artino** da ekialdeko saihetsean: (Sor, Laph); Zohotako lekukoak, berriz, gehienik **artino** aldaera baliatu du, baina baita **artio** ere; **entzün** ageri da Zohotan, Zuberoako gisan; **erri in** 'irri egin' entzun dugu Zohotan **irri in**-ekin batean eta Behaskanen, berriz, **habia** 'habia' aldaera; Ilharren **hautse** 'hautsi' baliatzen da; **xainkhüz** 'errenka' aldaera Laphizketan entzun dugu

- Atzizkietan **-tarzün** ahoskera zaharra aipa daiteke (Arbe, Laph) edo haren kide **-tarsün** (Zoho, Arbe / Pag)

Artean euskal dialektologian biziki aipatu da Zuberoako euskarak Amiküzen eragina ukan duela, baina begien bistan dagoen gauza da amiküztarrak hizkuntza-konstelazio bat baino gehiagoren menpe egon direla: orain berean ikusiko dugu.

7.5. Donapaleu inguruko berrikuntza batzuk Uhartehiririat edo Ostankoarat heldu ez izanak edo ohiz Garazi-Oztibarre-Landibarre alderdikotzat jotzen ditugun ezaugarri batzuk Amiküzeko hegoaldean agertzeak Donapaleu eskualdeburuaren hizkuntza-eragina erlatibizatuko luke, adieraziko luke Amiküzerat beste berrikuntza batzuk ere etorri diratekeela:

a) Garazi-Oztibarreko edo

b) Landibarreko edo

c) mendebaleko Baxenabarreko ardatzetarik

etorri diratekeela, eta Donapaleuko hizkuntza-berrikuntzak neutralizatzeko bezainbateko indarrez, gainera.

Amiküze hegoaldean ezagun du Uhartehiriko eskuaran Oztibarre eta Garazitik heldu den hizkuntza-eragina ez dela urrun: Gabadiko hiztunak ere sumatu du eragina:

eta geo beRiz hasten tzü, UaRte, UaRtetik haat hasten tzü OztibaReko heskuara

Ageri denez, herri honetako zenbait ezaugarri peko eskualdeetako joeretara lerratzen dira; batzuen eta besteen arteko hartu-emana ezaguna da; gure lekuko bithirindarrek dioskutenez, herritarrek hartu-emana dute Oztibarre aldeko jendeekin, baita familia bidez ere; hona Amiküze hegoaldeko ezaugarri batzuk:

- ostankoarrak eta bithirindarrak barne amiküztar gehienek etorkizuneko aditzetan ematen duten **-tiko** berrikuntza ez dute uhartearrek onetsi, gainerateko baxenabartarren **-tuko** orokorra ibiltzen dute

- Ostankoan entzun dugu **ie** ez den **ii** edo antzeko bokal lotura berezi hori: **ziin** 'zuen', **etzi^{i}n** 'ez zuen', **behar zi^{i}n...** eta bada soilagoa ere: **gintzin** 'genuen' zuketan; alta, honek ez du erran nahi **ie** lotura Ostankoan ez denik: **zien** 'zuen', **ginien** 'genuen', **zizien** 'zuten'; nolanahi ere den, Ostankoak ez ditu urrun Arberoa eta Oztibarre; ibar horietan ere ezaguna da **ii** bokal asimilazio hau, ondokotasunaren eraginak azalduko liguke

- Arberoan, Landibarren edo Garazin legez, Oztibarrera edo Landibarrera hurbil diren Uhartehirin eta Ostankoan xuketa alokutiboa baliatzen da

- Amiküze mugako herria izanik eta Oztibarrerekin hizkuntza-kidetasuna duen aldetik, ulergarri da datiboko lehen pertsonaren morfeman Uhartehirin **da** agertzea: **dadatena^{k}** 'didatenak', **t'zaazun** 'zidan'

- **moltsa** ibiltzen dute Uhartehirin eta Ostankoan, ez Amiküzen nagusi dabilen **multsa**

- Ostankoan bezala **ezkondu** ibiltzen da Uhartehirin eta ez **ezkundu**

- Oztibarren bezala **martxo** erraten da Uhartehirin eta baita **zortzi** ere, ez Amiküzen anitz herritan, Ostankoa barne, entzuten dugun **marxo** edo **zorzi**

- nahiz **undarrian** 'hondarrean' ahoskatzen duten, **gizon** eta **konten** aldaerak entzun

ditugu Uhartehirin

- **joanak** & **joaiteko** & **joain** & **juaiten** erraten dute Uhartehirin eta ez amiküztar gehienen **juite-;** Ostankoan, berriz, **joan**, **juan** eta **juiten** entzun ditugu, hiru aldaerak

- **jiin** 'jinen' aldaera entzun dugu Uhartehirin, Arberoan entzun ohi den hura, ez Amiküzen nagusi dabiltzan **jien** edo **jein**; Ostankoan ere **jein** entzun dugu

- **ziin** 'zuen' adizki aldaera ere entzuten da Uhartehirin, Amiküzen nagusi den **zien** beharrean

- Amiküzen ohikoa da **bezela** 'bezala' aldaera, baina Uhartehirin **bezạla** entzun dugu, **a** eta **e** arteko bokala duena

- Amiküzen nagusi dabilen ordinalaren **-gerren** aldaera beharrean, **-garren** entzun dugu Uhartehirin

- Ostankoan sistematikoki **denak** entzun dugu, ez Amiküzen ohikoa den **oro**

- Oztibarre-Garazin legez, hego-Amiküzeko Bithiriñan **samats** elea bildu dugu; etxe aitzina da samatsa, korralea, basakurta, oiloak-eta dabiltzana, **othe eta artho zango** uzten da bertan, **hoei** metro etxeko **portaletik,** Zohotan dioskutenez

- Amiküze hegoaldeko herrietan baliatzen da gure eskualdea Oztibarre-Garazirekin lotzen duen **bana** 'baina' aldaera ere (Bith, Ost, Uha), eta Amiküze saihetseko Oragarren ere bada **bana**; dena den, Uhartehirin entzun dugu **bena** ere; halaz ere, Arbotin **bena**, **bana** eta **bna** entzun ditugu

Baina erran hauek guztiek ez dute adierazten Amiküzen nagusi dabiltzan beste hainbat eta hainbat ezaugarri ibarreko hegoaldean kausituko ez ditugunik; eman dezagun, muga adlatiboan Amiküzeko tasun endemikoa den **-radio** atzizkia ageri da Uhartehirin: **noaadio**.

7.6. Eta Oragarre eta ondoko herriez ere berdin erran genezake; ez daude herri hauek Amiküzetik laxaturik, eskualdeko ezaugarriak ageri dira horietan ere, baina eskuinera dituzten Amiküze gehieneko herrietan agertu ez zaizkigun eta Hazparnealdeko euskara eratzen duten ezaugarri batzuen oihartzun nabarmena sumatu dugu Oragarren eta ondoko herrietan. Sarrikotako lekukoak honela zioskun Oragarreko mintzoaz:

> **Oarre manexa da, bena han amiña at ibilten du... Istuizeko ta elgarreateko, na gañea** 'bestelakoan' **manexa da OaRe, e**

Hazparne hiriak erakarpen indarra ukan du eskualdean, zehatzago errateko, Amiküzeko mendebalean; industriako gaiak eros zitezkeen hiri honetan eta aldi berean hazpandarrei laborantxako lehengaiak sal zekizkiekeen. Amiküzeko mendebala ez dago Donapaleutik urrun, baina ezta Hazparnetik ere. Ekar ditzagun tasunok gogora:

- **diila** 'duela', **niila** 'nuela', **nitiin** 'nituen', **gintiin** 'genituen', **baginakiin**, **ziin** 'zuen', **zitiin** 'zituen' erako sekuentziak ageri dira Oragarreko hiatusetan eta Barta auzoan ere bai; izan ere, Bartan entzun dugu **jiin** 'jinen' aldaera, Hazparneko XIX. mendeko katiximak dakarrena eta Arberoan entzuten dena

- arlo fonikoari dagozkio Lapurdiko kutsua gogorarazten diguten palatalizatu gabeko **dohaina** eta **gainean** aldaerak ere: Amiküze mendebaleko Oragarren entzun ditugu eta herri horretako auzo Bartan **ohoinik** edo **sasuinian;** Sarrikotan, berriz, **sasoin** eta **artzainak**

- edute genitiboan **-aan** atzizkia darabilte oragartarrek, Hazparnen legez

- Lapurdiko kutsua hartu diogu Oragarreko Bartan entzun dugun **baniin bat ordukotzat eta...** perpauseko adizlagunari

- auzo herri Arrüetan **zaunkütelaik** 'zigutelarik' aditzeko **n** horrek ere Hazparneko alderdira so jartzen gaitu

- ohikotasuna adierazten duen **johan** aldaera Bartan, Oragarren, Arrüetan eta Amorotzen agertu zaigu, betiere Amiküzeko mendebalean

- Lapurdin bezala **hazila** entzun dugu Bartan, baina Amiküzen **azaro** (Amo, Sor)

- Amiküze mendebaleko Sarrikotan entzun dugu **atheatzen** hitza

- berebat, Bartan **asko lekhutan bazuten labia** entzun dugu, Amiküzen entzun dugun **asko** bakarra

- Oragarren entzun dugu **meiku**, Amiküzen ohiz **mezinder** dena

- aldaera batzuek ere konexio bera erakusten dute: Beskoitzen **gela** 'ataka, langa' edo **ateka** dena, **jela** da Hazparne, Bardoze, Bastida, Izturitze eta Amiküzeko Arrüetan; hondarreko herri honetan **jela** & **xela** ageri dira

- **jelgi** & **jalgi** aldaerak ageri zaizkigu Amiküzen, baina Oragarren **jali** entzun dugu, Heletan edo Bardozen ohi den bezala

- Amiküzen beste inon ez bezala **orhoit** entzun dugu Bartan

- Oragarren entzun dugu garbiki Baxenabarre orokorreko eta Lapurdiko **hogoi** aldaera eta Arberoa urrun ez duen ondoko Amorotzen, berriz, **hoºi**

- Lapurdi aldeko eraginaren indarra erakutsi digute Oragarre herriko Barta auzoko **arno** eta **burraso** aldaerek; Amiküzen beste inon ere ez ditugu entzun

- Bartan entzun dugu **zuik** 'zuek' izenordaina ere, Lapurdiko Arrangoitze edo Uztaritze gogora dakarzkiguna

- Amiküze mendebaleko Sarrikotan entzun dugu **bazkaiten** 'bazkaltzen' aldaera eta baita **nintzen** ere, baina bi aldaerok eman dituen lekukoak bi urtez erauntsi zuen Hazparnen ikasten

7.7. Eta aipa dezagun Amiküze erdigunea: ez du hain hurbil Garazi-Oztibarre ardatza eta Hazparne ere urrunxe du. Oro har erdigune hau **ü** eginez mintzo da, Barta, Oragarre, Amorotze, Bithiriña, Ostankoa edo Uhartehiri ez bezala, baina erdigune zabal honetako herri guztietan ez da **ü** bokalaren agerpen-maiztasunaren maila bera entzuten, edo guk bederen ez dugu honela entzun. Erdiguneko herri hauek ere ez dute horren hurbil Zuberoa, baina eman dezagun, Oragarren edo Amorotzen baino eragin handiagoa du euskara zuberotarrak erdigune honetan, nahiz erdigune zabal horretan herri batetik bestera aldea egon daitekeen, baina ez hein handian, guk uste.

Eta dialektologian ezaguna ere badenez, ezaugarri zaharren agerpen geografikoan ez dago halako guztizko logikarik ere; gerta daiteke Zuberoa ondo-ondoko herri batean gizon batek herskari hasperenduen ahoskera apala izatea, eta Oragarreko auzo Bartako emazteki batek hauek gardenago ahoskatzea, non, eta Zuberoa urrunen duen Amiküzeko bazterrean, horrexegatik diogu ondokotasunaren eta hurbiltasunaren logikak garrantzia duela, baina ez dela ezaugarri guzti-guztietan matematikoki ageri, ñabardurak egin beharra dagoela; hasperenaren galeran fonologia naturalaren erakutsia ere aintzat hartzekoa da. Alta, ezaugarri berrien hedaduran **continuum**-aren irudiak ongisko funtzionatzen du, dela hauek Hazparne aldetik etorriak izan, dela xiberotarren euskaratik jinak izan, dela oro har Euskal Herriko erdigune orokorretik jinak izan.

Halaz, Donapaleu urrun ez duen Amiküzeko erdigune zabal honek, Amiküzeko ezaugarri endemiko edo berezkotzat jo ditugun horiek guztiak edo gehienak ematen ditu mintzoan, bertako lekukoek ezagun dute amiküztarrak direla, nahiz mintzoan ez diren Barta kartierreko, Oragarreko, Ostankoako, Uhartehiriko edo Zohotako amiküztar periferiko bat bezain markatuak edo nabarmenak. Gure ikuspegian bederen, erdiguneko hiztun amiküztarrak —eman dezagun, Martxüeta, Labetze, Ilharre, Altzümarta, Lüküze, Amendüze, Gabadi, Gamue edo Zohaztikoak...— neutroenak dira, ibarraren saihetsetako euskararen eragina ahulen biltzen duten heinean: Amiküzeko mintzoaren gune-gunean leudeke herri eta hiztun hauek eta gure ustean, historikoki Donapaleu legoke mintzo honen aldaeren oinarri edo sorburuan, egun amiküztarren hiri hau kasik guztiz erdaldundurik badago ere.

7.8. Aipatu bezala, Amiküzen bada halako mintzo nuklear eta neutro bat, baina ibar administratiboaren hegoalde, mendebal eta ekialdean ibarraz kanpoko hizkuntza-eragina biltzen du mintzoak, hartako, ezin erran genezake Amiküzeko ʰeskuara homogeneoa denik, saihets handiak ditu ibarrak, eremu lau nahiz menditsuak, otharreak, arto elgeak, ardi alderdi eta pentzeak, oihena, kaskoinekiko ondokotasuna eta gainerateko jende baxenabartarrekiko auzokotasuna...

Amiküzeko administrazio-barrutia bera da homogeneoa ez dena eta hartako ezin mintzoak ere guztizko batasunik ukan. Amiküzen hogeita hamabi herri ditugu, aise erraten da, eta argi denez neke da horrenbeste herritan eta hain espazio zabalean hizkuntza-batasunik ukaitea, ez Oztibarrekoa izan litekeen bezainbatekoa, bederen.[105]

105. Aski ttipia da Oztibarre ibar luxanga hori; mendiz inguraturik dago eta hamabi herrik osatzen dute: **a priori** halako eskualde batek aukera handia luke mintzo homogeneoa ukaiteko. Oztibarreko hiztunekin hartu-emanean izan garelarik, eta Videgainen tesiko transkribapen luze

Bibliografia

Alexander, R., 2007, "Dialectology", The Slavic and East European Language Research Center. http://seelrc.org/glossos/, 1-52.

Aranzadi Zientzia Elkartea, 1984-1990, **Euskalerriko atlas etnolinguistikoa** [**EAEL**], Aranzadi, Donostia.

Aurrekoetxea, G. & X. Videgain, (arg.), 2004, **Haur prodigoaren parabola Ipar Euskal Herriko 150 bertsiotan, ASJU-**ren gehigarriak 49, UPV/EHU, Bilbo.

Bortoni-Ricardo, S. M., 1985, **The urbanization of rural dialect speakers. A sociolinguistic study in Brazil,** Cambridge University Press.

Bynon, Th., 1981 [1977], **Lingüística histórica**, Gredos, Madril.

Camino, I., 2009, "Mugako hiztun eta aldaerak ipar-mendebaleko Zuberoan", **FLV** 111, 153-218.

___, 2013, Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco aitaren guiristhinho perfeccioniaren praticaren pparte bat (1782). **Edizioa eta azterketa**. **ASJU** 47/1 & Euskaltzaindia, Euskararen lekukoak bilduma 27, Bilbo.

___, 2015, "Oztibarreko mintzoaz eta haren lexikoaz", **FLV** 119, 5-60.

Casenave-Harigile, J., 1983, **Amikuze.** Ikastola liburutegia. Geografia saila 8, Gordailu, Donostia.

Cerquand, J. F., 1985, **Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak,** A. Arana (arg.), Txertoa, Donostia.

Cortelazzo, M., 1969, **Avviamento critico allo studio della dialettologia italiana (1). Problemi e metodi,** Pacini editore, Pisa.

Coyos, J.-B., 1999, **Le parler basque souletin des Arbailles. Une approche de l'ergativité,** L'Harmattan, Paris.

Chambon, J.-P., 2004, "Les centres urbains directeurs du Midi dans la francisation de l'espace Occitan et leurs zones d'influence: esquisse d'une synthèse cartographique", **Revue de Linguistique Romane** 68, 5-13.

Charles Auguste Le Quien de Laneufville (arg.), 1786, **Catichima edo fediaren eta guiristino-eguien explicacione laburra,** René Leclercq, Akize.

Charritton, P., 1984, **Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak**, Elkar, Donostia.

Dalen, A., 1993, "The emergence of an urban dialect", in W. Viereck (arg.), **Proceedings of the International Congress of Dialectologists, Bamberg, 29/7 – 4/8 1990.** Historical Dialectology and Linguistic Change. Linguistic Atlases and Dictionaries, F. Steiner, Stuttgart, 42-49.

___, 1999, "Contributing factors in the making of the post-medieval urban dialect of Trondheim", in E. H. Jahr (arg.), **Language change. Advances in historical sociolinguistics,** Mouton de Gruyter, Berlin-New York, 291-304.

Dassanza, M., 2015, **Albaitaritzako idazlanak (1692–1892),** Tx. Peillen (prest.), Euskaltzaindia, Bilbo.

Davant, J.-L., 2009, **Zuberoako literaturaz. Antologia laburra,** Euskaltzaindia, Bilbo.

Duny Pétré, P., 1959, "Trois textes folkloriques basques de Basse-Navarre Orientale", **BAP** 15/1, 47-60.

Epelde, I., 2003, **Larresoroko euskara,** UPV/EHU-ko tesi argitaragabea.

Etxebarria, J. M. 1994, "Las grabaciones de Viena en euskera. Bajo navarro occidental y bajo navarro oriental", **Mundaiz** 47, 45-75.

Euskaltzaindia, 2008-14, **Euskal Herri Hizkeren Atlasa** [**EHHA**], 6 liburuki, Euskaltzaindia, Bilbo.

Gómez, R., 1991, "Erronkariko dotrina argitaragabe bat: edizioa eta azterketa", in J. A. Lakarra (arg.), **Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum, ASJU**-ren gehigarriak 14, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 375-426.

Gregory, D., 1985, "Suspended animation: the stasis of diffusion theory", in D. Gregory, & J. Urry (arg.), **Social relations and spatial structures,** Macmillan, Hong Kong, 296-336.

Haase, M., 1994, "Amikuzera", in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), **Euskal Dialektologiako Kongresua, ASJU**-ren gehigarriak 28, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 173-187.

Irizar, P, 1981, **Contribución a la dialectología de la lengua vasca,** Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia.

Karrika, B., 1990, **Armendaritze haur begiez,** Auspoa, Tolosa.

Lakarra, J. A., 2008, "Aitzineuskararen gramatikarantz (malkar eta osinetan zehar)", in X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.), **Gramatika jaietan. Patxi Goenagaren omenez, ASJU-**ren gehigarriak 51, UPV/EHU, Bilbo, 451-490.

Larrasket, J., 1939, **Le basque de la Basse-Soule orientale,** Klincksieck, Paris.

Mitxelena, K., 1977 [1961], **Fonética histórica vasca** [**FHV**], 2. argit., Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia. Ikus orain **Obras Completas** 6, UPV/EHU & ASJU, 2011, Bilbo.

Montes Giraldo, J. J., 1982. **Dialectología general e hispanoamericana**, Publicaciones del Instituto Caro y Cuervo, Bogotá.

Nordberg, B. (arg.), 1994, **The sociolinguistics of urbanization: the case of the Nordic countries,** Walter de Gruyter, Berlin-New York.

Orpustan, J.-B., 2005, "Sermons basques du XVIII siècle en Pays de Cize. Euskal-pheredikuak Garazin XVIII-garren mendean (Archives de la maison Iriberria de Bascassan)", **Lapurdum** 10, 169-232.

Otsibar, K., 2003, **Lehenago Gamere,** Sü Azia, Maule.

Padilla, M., 2011, **Kadet eta Bettiriño. XVIII. mendeko eskuizkribu anonimo baten edizio kritikoa eta azterketa,** Euskaltzaindia, Bilbo.

Pagola, R. M., I. Iribar & J. J. Iribar, 1999a, **Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Ekialdeko Behe-nafarrera** I eta II, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

___, 1999b, **Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Mendebaldeko Behe-nafarrera,** Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

Peillen, Tx., 1972, "Recueil de recettes vétérinaires de Jauréguiberry (Manuscrit nº 118 du fonds celtique et basque de la Bibliothèque Nationale-Legs d'Abbadie)", **BMB** 57/3, 113-144.

___, 1994, "Les langues de la Soule", in P. Bidart (biltz.), **Le Pays de Soule,** Izpegi, Baigorri, 259-274.

Radtke, E., 1998, "Quant'è innovativa la dialettologia tradizionale? Il caso della dialettologia campana", in G. Ruffino (arg.), **Atti del XXI Congresso Internazionale di Linguistica e Filologia Romanza,** Max Niemeyer Verlag, Tübingen, 563-574.

de Rijk, R., 1999, "Zuberoa Garaiko mintzaeraren eredu bat", **FLV** 80, 155-163.

Ronjat, J., 1980 [1941], **Grammaire Istorique des parlers provençaux modernes.** Tome 4, appendice: les dialectes, index; berrinprimaturik, Slatkine & Laffitte, Genève & Marseille, 1-55.

Salaberri Ibarrolakoa, 1856, **Vocabulaire de mots basques bas-navarrais traduits en langue française,** Lamaignère, Baiona.

Santazilia, E., 2013, "Noun Morphology", in M. Martínez-Areta (arg.), **Basque and Proto-Basque,** Peter Lang, Frankfurt am Main, 223-281.

Veny, J., 1986, **Introducció a la dialectologia catalana,** Enciclopedia Catalana, Bartzelona.

Videgain, X., 1989, **Le vocabulaire de l'élevage en pays d'Oztibarre. Contribution aux archives de l'oralité basque,** Université de Bordeaux III, argitaratu gabeko doktoretza tesia, lau liburuki.

Villena, J. A., 1994, **La ciudad lingüística. Fundamentos críticos de la sociolingüística urbana,** Universidad de Granada, Granada.

Wiemer, B., 2004, "Population linguistics on a micro-scale. Lessons to be learnt from Baltic and Slavic dialects in contact", in B. Kortmann (arg.), **Dialectology meets Typology. Dialect grammar from a cross-linguistic perspective,** Mouton de Gruyter, Berlin-New York, 497-526.